



HIRI ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN ALDAKETAREN ERAGINA GIPUZKOAKO UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FONDOAREN BILAKAERAN 2011-2014 DENBORALDIAN

GRADU AMAIERAKO LANA

DONOSTIAKO ENPRESA IKASKETEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Egilea: OLATZ EGUIGUREN GORRICHATEGUI

Zuzendaria: AGUSTIN ERKIZIA OLAIZOLA

**Lana burutze urtea: 2015
Lanaren defentsa urtea: 2015**

LABURPENA:

Lan honen bitartez, 2013.urtetik aurrera, etxebizitza hutsen gain aplikagarria den errekareru bat ezarri izanak, ekarri dituen ondorioak zein izan diren aztertuko dira. Eragin hau gehienbat zergetan emango da baina baita biztanlerian edo Udal Finantzaketarako Foru Fondoan ere. Etxebizitza hutsen gain aplikatuko den errekareru hori ekiditeko biztanleriak inolako akziorik hartu duen aztertzea izango da lan honen helburu nagusia.

Burutu nahi den analisia egiteko, Gipuzkoa mailako datuak aztertzen hasiko gara eta ondoren zenbait irizpideren arabera hautatuko lagin ezberdinetan zentratuko gara, 10 udalerriz osaturiko lagin bakoitzarekin analisiak eginez.

Hitz gakoak: Udal Finantzaketarako Foru Fondoa (UFFF). Ondasun Higiezinaren gaineko zerga (OHZ). Biztanleria. Etxebizitza Hutsen gain aplikatzen den errekareru.

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	3
TAULEN AURKIBIDEA	4
1 SARRERA.....	5
2 ONDASUN HIGIEZINEN GAINEN ZERGA	7
2.1 ETXEBIZITZA HUTSEN GAINEN ERREKARGUA	11
3 UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FONDOA.....	12
4 BIZTANLERIA	16
5 HIPOTESIAREN AZALPENA	18
6 KONTZEPTU EZBERDINEN BILAKAERA HIPOTESIAREN AZTERKETAN	19
6.1 BIZTANLERIAREN MUGIMENDUA GIPUZKOA MAILAN	19
6.2 BIZTANLERIAREN MUGIMENDUA ESKUALDEKA	26
6.3 FORU FONDOAREN BILAKAERA GIPUZKOA MAILAN.....	31
6.4 BIZTANLERIARI DAGOKIONEZ MUGIMENDU EDO TRANTSIZIO HANDIENA PAIRATU DUTEN UDALERRIEN HAUTAKETA.....	35
7 HAUTATUTAKO LEHEN HAMAR UDALERRIEKIN ANALISIA	37
7.1 LEHEN AZTERKETAKO HAMAR UDALERRIEN ETXEBITZA HUTSEN GAINEN ERREKARGUA.....	37
7.2 ONDASUN HIGIEZINEN GAINEN ZERGA GURE LEHEN AZTERKETAREN BARNEAN....	38
7.3 ETXEBIZITZA HUTSEN KOPURUA ETA HAUEN GAIN EZARTZEN DEN ERREKARGUTIK KOBERTZEN DENA.....	42
7.4 UFFF-K IZANDAKO BILAKAERA ONDASUN HIGIEZINEN ZERGAK IZANDAKO ALDAKETAREN ONDORIOZ	47
8 AZTERKETA BESTE IKUSPUNTU BATETIK, BIGARREN LAGIN BATEKIN	49
8.1 BIGARREN LAGINEKO UDALERRIETAKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA.....	51
8.2 ETXEBIZITZA HUTSEK IZANDAKO BILAKAERA	53
8.3 BIZTANLERIAREN MUGIMENDUAREN ETA ETXEBIZITZA HUTSEN BILAKAERAREN ARTEKO ERLAZIOA.....	53
8.4 OHZ-REN ETA UFFF-REN BILAKAERA	57
9 ZER GERTATU DA ERREKARGUA APLIKATU EZ DUTEN UDALERRIETAN?.....	59
10 ONDORIOAK	61
11 BIBLIOGRAFIA	63
12 ERANSKINAK.....	64

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.....	10
Taula 2: Foru fondoaren banaketarako zenbatekoak	13
Taula 3: Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren Bilakaera	14
Taula 4: Gipuzkoako biztanleria urtez urte	16
Taula 5: Gipuzkoako biztanleriak izandako bilakaera (2011-2014).....	20
Taula 6: Biztanlerian bilakaera gorakor handiena izan duten Udalerriak.....	23
Taula 7: Biztanleriaren bilakaeran joera beherakor handiena izan duten Udalerriak ...	24
Taula 8: Biztanleria eskualdeka	28
Taula 9: Biztanleriaren bilakaera (2011-2014) eskualdeka	29
Taula 10: Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren bilakaera Gipuzkoako Udaletan.....	31
Taula 11: Lagina osatzeko hautatutako Udalerriak eta berain biztanleriak jasandako bilakaera	36
Taula 12: Analisisiko Udalerriek duten etxebizitza hutsen gaineko errenergua.....	38
Taula 13: Herri bakoitzak jasotako Ondasun Higiezinaren gaineko zerga.....	39
Taula 14: OHZren bilakaera zenbateko eta ehunekoetan.....	40
Taula 15: Etxebizitza hutsen kopuruak.....	42
Taula 16: Etxebizitza hutsen errenergutik kobratzen dutena	46
Taula 17: UFFF-ren bilakaera azterketa honen baitan	48
Taula 18: : UFFF-ren bilakaeraren azterketa sakonago bat.....	48
Taula 19: Etxebizitza hutsen gaineko errenergua (bigarren lagina)	50
Taula 20: Bigarren azterketaren barnean, biztanleriak izandako bilakaera.....	51
Taula 21: Jaiotza eta Heriotza tasen aldaketak (2013-2014 urteen artean).....	52
Taula 22: Etxebizitza hutsen zenbatekoak eta hauen bilakaera	53
Taula 23: Etxebizitza hutsen eta biztanleriaren gorabeherak.....	54
Taula 24: Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Bilakaera (2011-2014)	57
Taula 25: Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren bilakaera	58
Taula 26: Biztanleria, OHG eta UFFF-ren bilakaerak	59

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Grafikoa 1: Gipuzkoako biztanleriak eskualdeka banatuta izan duen bilakaera.....	28
Grafikoa 2: Analisisaren parte diren Udalerrietako etxebizitza hutsen kopuruak	44

1 SARRERA

Gradu amaierako lan honen helburua, 2013. urtetik aurrera etxebizitza hutsen gain, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren baitan, aplikatzen hasi ziren errekareru edo kuota gehigarriak, beste zenbait kontzepturen baitan ze ondorio izan dituen aztertzea da. Bestela esanda, errekareru honek Biztanleriaren trantsiziorik sortu duen edo Udal Finantzaketarako Foru Fondoa bezalako kontzeptu batean inolako eraginik izan duen baieztatu edo ezeztatu nahi dugu lan honen bitartez.

Azterketa hau hautatu dut, duela gutxi indarrean jarri den kontzeptu bat izateaz gain, interesgarria iruditzen zaidalako, gure inguruan eta Gipuzkoako udaletan, Legedian sartu den aldaketa berri batek, nolako ondorioak izan ditzakeen ikustea. Hasiera batean, pentsatzen duguna ondorengoa da: Etxebizitza hutsen titular direnek, aipatutako errekareru ekiditea ez dela oso zaila. Alderantziz, nahikoa izango litzateke, titularra bera edota familiarreko edo inguruko norbait, etxebizitza huts horretan erroldatzea (etxebizitza hutsa kokaturik dagoen herriko erroldan izena emanda). Honela, etxebizitza hutsak, teoriarik behintzat, etxebizitza huts izateari utziko lioke. Eta modu honetan, errekareru ez litzateke ordaindu beharko. Guzti honek, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren aldaketak ekarriko lituzke. Baina ez soilik OHZ-n, izan ere, aldaketak sortuko ziren alde batetik biztanlerian, eta beste alde batetik, Udal Finantzaketarako Foru Fondoan ere.

Biztanleriari begiratu, errolda aldaketek eraginda, mugimendu edo trantsizio ezberdinak topatuko ditugula uste dugu, azterketa aurrera doan heinean. Izan ere errolda aldaketa batekin, udalerririk bateko biztanle bat, beste udalerririk bateko biztanle izatera pasa liteke, eta alderantziz. Lanean zehar, mugimendu hauen noranzkoak eta zenbaterakoak aztertzen saiatuko gara.

Biztanleriaz gain, Udal Finantzaketarako Foru Fondoa aipatu dugu. Zer eragin du ordea OHZ-ren aldaketak UFFF-ren gain? Udal batek Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga kontzeptuagatik kobratuko duena esperotakoa baino baxuagoa izango da gure hipotesia errealitate egiten bada. Hau da, ez luke etxebizitza hutsengatik, teoriarik

tokatzen zaion errekararen kopurua kobratuko. Beste alde batetik ordea bere udalerriko erroldan, biztanle kopuru altuagoa izango luke, eta honek, UFFF-ren igoera ekarri dezake. Zergatik? Udal bakoitzak kobratzen duen Gipuzkoako Foru Fondoaren zenbatekoa nagusiki, herri bakoitzaren biztanle kopuruaren arabera zehazten delako. Beraz, etxebizitza hutsen kopuruak behera egitean, biztanleriaren kopuruak gora egingo luke, eta teoriarik, baita udalerririk horrek kobratuko lukeen UFFF-ak ere.

Erabili dugun metodologiari dagokionez, metodologia kuantitatiboaz baliatu gara azterketa honetan, izan ere gertakari baten aurrean egon diren jarrerak zein izan diren ezagutzen saiatu gara. Horretarako, iturri ez-zuzenez baliatu gara, zenbait erakundek bildu dituzten datuez baliatu baikara lan honetan zehar.

Lanaren egitura berriz, honelakoa izan da. Hasieran, kontzeptu guztien azalpen bat emango dut, eta Gipuzkoako datuak islatuko ditut zenbait taulen bitartez. Ondoren Gipuzkoa mailan biztanleriaren mugimenduak aztertuko ditut pixka bat, mugimenduak eskualdeka eta herriz herri nolakoak izan diren ikusteko. Jarraian, analisiaren edo azterketaren atalarekin hasiko naiz. Analisia egiteko, biztanlerian mugimendu garrantzitsuenak izan dituzten udalerririk aztertuko ditugu arrenik, hauetan, etxebizitzaren bilakaera zenbatekoa izan den ikusiz. Eta bien bilakaerak, OHZ eta UFFF-n gure uste dugun eraginik ekarri duten frogatuko dugu. Ondoren beste udalerririk batzuetaz baliatuta, etxebizitza hutsen eta biztanleriaren arteko lotura nolakoa den aztertuko dugu, bi hauen artean inolako loturarik dagoen frogatuz. Honela biztanlerian eman den migrazioa, etxebizitza hutsen jaitsierarekin inola loturik dagoen ikustea da gure helburua. Hauen kasuan ere, OHZ eta UFFF-n izandako eragina behatuko dugu. Eta azkenik, errekararen aplikatu ez duten udalerririk batzuekin ere egingo dugu azterketa.

Eginiko azterketa guzti hauetaz baliatuta zenbait ondorioetara iritsiko gara. Esan dezakegu, garbi ikusten dela, errekararen aplikatu duten eta ez duten udalerririk artean, kontzeptu hauei dagokionez bilakaerak oso ezberdinak izan direla. Eta honek errekararen aplikatzeak edo ez aplikatzeak, Udal bakoitzean izandako eragina erakutsiko digu.

2 ONDASUN HIGIEZINEN GAINEN ZERGA

Lan honetan burutu nahi den azterketarako, eskuartean erabiliko ditugun datu nagusiak Ondasun Higiezin gainen Zergan eta Gipuzkoako Foru Fondoan zentratuko dira, nahiz eta biztanleria bezalako parametroak ere neurtuko ditugu. Hau horrela izanik, bi kontzeptu hauen azalpena, bai Ondasun Higiezin gainen Zergarena eta baita Udalen finantzaketarako Foru Fondoarena ere, beharrezkoa iruditzen zait. Eta azalpen horietan zentratuko gara ondoren, Ondasun Higiezin gainen Zergarekin hasiz.

Ondasun Higiezin Gaineko Zerga, udal zerga eta zuzeneko tributu bat da, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko edozein udalerritan kokatuta dauden ondasun higiezin baliokide zergapetzen du urtero, foru arauan ezarritako moduan. Ondasun Higiezin Gaineko Zergari buruzko informazioa, Uztailaren 5eko 12/1989 FORU ARAUAN aurki dezakegu.

Zerga honek, alde batetik, ondasun higiezin hiritarrak barneratzen ditu, eta bestetik, ondasun higiezin landatarrak. Gradu Amaierako Lan honetan ondasun higiezin hiritarrez baliokide garenaz, burutu nahi dugun analisirako, hauek zein diren aipatuko dugu laburki.

Ondasun higiezin hiritartzat ondorengo hauek hartuko dira:

1. Lurzoru hiritarra

1. Hirigintzako plangintzan hiritar, hiritartu edo baliokide gisa sailkatuta edo definituta dagoena.
2. Hiritar-gaitzat hartutako lursailak edo, bestela, lurralde eta hirigintza antolaketako tresnek lurzoru hiritartu bihurtzea aurreikusi edo baimentzen duten lurzoruak.
3. Nekazaritza alorreko legerian jasotakoaren kontra zatikatzen diren lursailak.

2. Eraikin hiritarrak. Hurrengo hauek hartuko direlarik horrelakotzat:

1. Eraikinak, hauek eraikitzeke erabili diren osagaiak, kokatuta dauden lekuak, beraiekin parekatu daitezkeen merkataritza eta industria instalazioak, hala nola dikeak, biltontziak eta karga-tokiak.
2. Hiritartu eta hobetzeko obrak, hala nola lur berdinketak eta estali gabeko eremuak erabiltzeko egiten direnak. Halakotzat hartuko dira azoka esparruak, aire zabaleko gordailuak, ur presak, ur jauziak, urtegiak, kirol zelai eta instalazioak, kaiak, aparkalekuak eta eraikinei erantsitako guneak.

Hauetaz gain, lehen aipatu bezala, ondasun higiezin landatarrak daude. Baina gure kasuan, landuko ez ditugunez, ez zait beharrezkoa iruditzen hauen aipamen sakonagorik egitea.

Ondasun Higiezin guzti hauei zerga bat aplikatzen zaie urtero. Aplikatzen den, Ondasun Higiezin gaineko udal Zerga hau dela eta ordaindu behar den kopurua kalkulatzeko, zenbateko batzuk zehaztu behar dira lehenengo: Oinarri ezargarria, Katastroko balioa, Kuota Osoa, Kuota Likidoa, Karga Tasa, Hobariak eta azkenik Ordaindu behar den Kuota. Kontzeptu hauek banan bana aztertuz, amaierako zergaren kopurura nola iristen den ikusiko dugu:

Oinarri ezargarria: ondasun higiezinaren balioa izango da. Balio hau, katastroko balioa, erreferentzia gisa merkatuan duten balioa hartuz finkatuko da.

Katastroko Balioa: lurzoruaren eta eraikuntzaren balioa izango da. Katastroak, hiri ondasun higiezinaren datu eta deskripzioek osotzen dituzte, azalerak, kokapena, mugak, aprobetxamenduak, kalitateak, balioak eta lurralde jabetza ezagutarazi eta bere aspektu eta aplikazioetan definitzen duten gainerako inguruabar fisiko, ekonomiko eta juridikoak adieraziko direlarik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak eta foru arau bidez onartuko diren koefizienteak aplikatuz eguneratu ahal izango dira.

Kuota Osoa: Zerga honen kuota osoa oinarri ezargarriari karga tasa aplikatuz ateratzen den emaitza izango da.

Karga Tasa, Udal bakoitzak, bere herriko hiri ondasunen gainean aplikatuko duen portzentajea izango da. Ehuneko hau, diputazioak ezarritako minimo eta maximo baten artean kokatu beharko da. Ondasun hiritarren kasuan, karga tasa 1000ko 4koa izango da gehienez.

Lurzoru industrial edo hirugarren sektorekoan kokatuta dauden ondasun higieziei 1000ko 6ko mugarainoko karga tasa aplikatzea posible izango da.

Kuota likidoa: kuota osotik foru arauetan jaso eta ordenantza fiskaletan onartzen diren hobariak gutxituz lortuko da.

Zenbait hobari aplikatzeko eskubidea izango dute titularrek, obrak egiten hasten direnean, familia ugarien titularrak direnean, babes publikoko etxebizitza berriak dituztenean eta beraien ondasun higiezinetan eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatzen dituztenean.

Behin Oinarri ezargarriari, aplikatu beharreko karga tasa eta hobariak aplikatu ondoren, ordaindu beharreko kuota zenbatekoa den kalkulatu ahal izango da eta zenbateko hau izango da Udalak etxebizitza horrengatik kobratuko duen kopurua.

Ondorengo Taula honetan ikusi daitezke 2013 eta 2014 urteetan, Gipuzkoako udalerrri bakoitzak aplikatu duen karga tasaren ehunekoa edo portzentajea zenbatekoa izan den bakoitzaren kasuan, Ogasun higiezinaren kuota kalkulatzeko orduan. Ikusten da, urte batetik bestera, aldaketa handiegirik eman ez den arren, eman diren diferentzia guztietan, kopuruek gora egin dutela. Beraz, 2012tik 2013ra, karga tasa igo egin da orokorrean eta honekin batera baita ordaindu beharreko zerga ere.

Taula 1: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga

UDALERRIA	2013	2014
ABALTZISKETA	0.1880	0.1910
ADUNA	0.1900	0.2000
AIZARNAZABAL	0.2244	0.2244
ALBIZTUR	0.1600	0.1600
ALEGIA	0.2123	0.2187
ALKIZA	0.1980	0.1980
ALTZO	0.1230	0.1860
AMEZKETA	0.1733	0.1786
ANDOAIN	0.1964	0.1964
ANOETA	0.2000	0.2000
ANTZUOLA	0.2240	0.2310
ARAMA	0.1200	0.1200
ARETXABAETA	0.1990	0.2049
ASTEASU	0.2600	0.2600
ATAUN	0.1220	0.1300
AIA	0.1957	0.1997
AZKOITIA	0.2200	0.2200
AZPEITIA	0.2846	0.2923
BEASAIN	0.2113	0.2164
BEIZAMA	0.0820	0.0840
BELAUNTZA	0.1600	0.1600
BERASTEGI	0.1300	0.1400
BERROBI	0.1000	0.1000
BIDANIA - GOIATZ	0.1800	0.1800
ZEGAMA	0.2472	0.2548
ZERAIN	0.2530	0.2540
ZESTOA	0.2100	0.2100
ZIZURKIL	0.1854	0.1919
DEBA	0.2370	0.2450
EIBAR	0.2668	0.2732
ELDUAIN	0.0820	0.1000
ELGOIBAR	0.2226	0.2301
ELGETA	0.2044	0.2064
ESKORIATZA	0.1951	0.2011
EZKIO - ITSASO	0.2250	0.2300
HONDARRIBIA	0.2484	0.2494
GAINTZA	0.2000	0.2200
GABIRIA	0.1350	0.1350
GETARIA	0.1957	0.2019
HERNANI	0.1895	0.1940
HERNIALDE	0.1800	0.1800
IBARRA	0.2141	0.2210
IDIAZABAL	0.1946	0.1965
IKAZTEGIETA	0.1500	0.1550

UDALERRIA	2013	2014
IRUN	0.2552	0.2621
IRURA	0.1937	0.2000
ITSASONDO	0.1820	0.1900
LARRAUL	0.2500	0.2500
LAZKAO	0.1822	0.1865
LEABURU	0.1050	0.1050
LEGAZPI	0.2540	0.2540
LEGORRETA	0.1700	0.1700
LEZO	0.2880	0.2950
LIZARTZA	0.1535	0.1535
ARRASATE	0.1915	0.1953
MUTRIKU	0.2380	0.2400
MUTILOA	0.1722	0.1729
OLABERRIA	0.1665	0.1665
OÑATI	0.2368	0.2275
OREXA	0.0400	0.0400
ORIO	0.1740	0.1800
ORMAIZTEGI	0.2720	0.2800
OIARTZUN	0.1939	0.1986
PASAIA	0.2443	0.2519
SORALUZE	0.2700	0.2800
ERREZIL	0.2000	0.2200
ERRETERIA	0.2810	0.2810
LEINTZ - GATZAGA	0.2024	0.2044
DONOSTIA	0.1894	0.1894
SEGURA	0.2164	0.2173
TOLOSA	0.2787	0.2837
URNIETA	0.1880	0.1880
USURBIL	0.2065	0.2086
BERGARA	0.1846	0.1864
VILLABONA	0.2689	0.2750
ORDIZIA	0.2400	0.2460
URRETXU	0.1990	0.2050
ZALDIBIA	0.2100	0.2200
ZARAUTZ	0.1954	0.2000
ZUMARRAGA	0.1932	0.1975
ZUMAIA	0.2032	0.2081
MENDARO	0.2000	0.2100
LASARTE - ORIA	0.1663	0.1663
ASTIGARRAGA	0.1683	0.1725
BALIARRAIN	0.1830	0.1860
ORENDAIN	0.1720	0.1720
ALTZAGA	0.1670	0.1840
GAZTELU	0.0400	0.0400

Iturria: www.gipuzkoa.net (2013 eta 2014).tik moldatua

2.1 ETXEBIZITZA HUTSEN GAINEKO ERREKARGUA

2012. urtera arte, titularrek beraien etxebizitzengatik urtero ordaindu beharrekoa, lehen ikusi moduan kalkulatzeko zen, hau da, oinarri ezargarriari karga tasa eta hobariak aplikatuta. Hau horrela zen, nahiz eta titularrak etxebizitza bat baino gehiago izan eta etxebizitza hauetako bat edo gehiago hutsik egon. Urte horretatik aurrera ordea, etxebizitza bat hutsik aurkitzen bazen, titularrak ondasun higiezin horrengatik ordaindu beharreko kopurua alda zitekeen, udalerrriaren arabera. Izan ere, legedian aldaketa bat sartu zen 2012. urtean, 4/2012 FORU ARAUA, uztailaren 4koa, udal zergen esparruan zenbait aldaketa sartzen dituenaren bitartez. Foru Arau honekin aldaketak sartu ziren Ondasun Higiezin gainerako Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 14.5 artikuluan.

Legedian sartu zen aldaketa honek, udalei eskubide berri bat eman zien. Aurrerantzean, ondasun higiezinak etxebizitza izaera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean, hau da, etxebizitza horiek hutsik mantentzen direnak badira, udalek 100eko 150erainoko erretegia ezarri dezakete zergaren kuota likidoaren gainean.

Ondasun Higiezin gainerako Zergari aplikatzen zaion erretegia, zerga honen subjektu pasiboari exijituko zaie, hau da, etxebizitzaren titular direnei; haren sortzapena zerga sortzen den une berean gertatuko da; eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera. Erretegia hau etxebizitza izaera duten eraikinei aplikatuko zaie eta etxebizitzaren eranskinak, izanez gero, kontuan izango dira baita ere.

Etxebizitza bat hutsik ez dagoela ziurtatu ahal izateko, hau da, ondasun higiezin hori norbaiten ohiko egoitzat hartzeko, zergaren sortzapen egunean, etxebizitza kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatuko behar da etxebizitza hori norbaiten bizilekua dela. Beraz, sarrerako atalean, gure hipotesia azaldu dugunean esan bezala, oso erraza gerta daiteke titularrentzat, etxebizitza hutsik egon arren, udalerriko

errodan inskribatu eta ordaindu beharreko errenergua saihestea. Hau, zergaren sortzapen eguna baino lehenago egiten bada behintzat.

2012an onartutako foru arau honek ezarritako xedapenak 2013. urtetik aurrera jarriko ziren indarrean. Hortik aurrera, udal bakoitzak erabakitzen du urtero, zenbateko errenergua ezarriko duen bere udalerriko etxebizitza hutsen gainean. Azkeneko atalean, hau da, eranskinetan itsatsita ikusi ahal izango dira 2013 eta 2014. urteetan Gipuzkoako udalerriek ezarri dituzten errenergua.

Hau guztia horrela izanik, aipatu nahiko nuke, badirela salbuespen kasu batzuk errenergua hau aplikatzerako orduan. Hau horrela da adibidez, ostalaritzako kasuetan, alokaturik dauden etxeei buruz ari garenean, hobariren bat aplikatzen den kasuak daudenean, ... Salbuespen hauek ez dira beti herri guztien kasuan emango, eta norbaitek informazio gehigarri modura jakin nahiko balu zein diren ematen diren salbuespen kasuak eta zein udalerritan ematen diren, eranskinen atalean aurkitu ahal izango du informazio hori ere.

3 UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FONDOA

Aurrera eginez, Gipuzkoako Foru Fondoa da orain sakonduko dugun kontzeptua. 1998ko uztailaren 5ean onartu zuten Udal Ogasunen Foru Arauak, besteak beste, itundutako zergen partaidetza, eta herrialde historikoko Aurrekontu Nagusietan urtero itundutako zergei dagokien kreditua sartzea xedatu zuen.

Orain arte, Herrialde Historikoko Aurrekontuen Foru Arauak urtero arautu du Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren bidez itundutako zergen partaidetza. Hori dela eta, Fondoak zuzkidura eta banaketa gaietarako, erabili beharreko irizpideetarako, konturako emanaldietarako eta Foru Fondoaren garrantzizko gainerako gora-beheretarako egonkortasuna behar duela iritzi da, nahiz eta zenbatekoak, urtero, Aurrekontuen Foru Arau horretan sartutako xedapen edo aldaketa batzuen arabera aldatu daitezkeen.

Aldi berean, Fondoaren urteroko arautze horrek ahalik eta adostasun handiena behar zuen. Foru Fondoaren irizpideak finkatzeko Batzar Nagusietan txosten bat egin zen, 1994ko uztailaren 2ko bileran onartu zena.

Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren banaketa ondoren adierazitakoari jarraituz egiten da:

1.- 100eko 99,85a Gipuzkoako herrialde historikoen udalerrien artean banatuko da, irizpide hauen arabera:

a) 100eko 1,2a 1.100 biztanle bitarteko udalerrien artean banatuko da, hurrengo taula agertzen diren zenbatekoen arabera:

Taula 2: Foru fondoaren banaketarako zenbatekoak

<u>Udalerriko biztanleak</u>	<u>Zenbateko Finkoak</u>
200 arte	14 milioi
201 eta 400 bitartean	12 milioi
401 eta 600 bitartean	10 milioi
601 eta 1.000 bitartean	6 milioi
1.001 eta 1.100 bitartean	4 milioi

Iturria: Azaroaren 23ko 15/1994 FORU ARAUA, Udal Finantzaketarako Foru Fundoa arautzen duena, www.eudel.eus webgunean aurkitua

Aurreko zenbateko finkoak ezartzearen ondorioz ateratzen den emaitza %1,2aren zenbatekoa baino gehiago edo gutxiago bada, dagoen aldeak biztanleen kuotaren zenbatekoa gutxitu edo gehituko du, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.

b) 100eko 90a biztanleen kuotatzat banatuko da udalerrien eskubidezko biztanleak oinarritzat harturik.

Biztanleen kuotan beharrezko egokitzapenak egingo dira kuota finkoa gehi biztanleen kuota kontzeptupean esleitutakoa gehitzeko. Era horretan, udalerririk batek ezingo du kontzeptu berdinegatik bera baino biztanle gutxiago dituen aurreko udalerririk baino zenbateko gutxiago jaso.

- c) 100eko 2,15a Donostiari esleituko zaio hiriburua izateagatik.
- d) 100eko 3a udalerrri bakoitzeko errentaren alderantzizko proportzioaren arabera banatuko da, udalerrrien eskubidezko biztanle kopuruaz haztatua.
- e) 100eko 3,5a udalerrri bakoitzeko ahalegin fiskalaren zuzeneko proportzioaren arabera banatuko da, udalerrrien eskubidezko biztanle kopuruaz haztatua.

2.- 100eko 0,15a Euskal Udalen Elkartea (EUDEL) finantzatzeko erabiliko da.

Egin beharreko azterketa burutzeko, beharrezkoa dugu aztergai diren udalerriei azken urteetan zegokien foru fondoaren zenbatekoa jakitea. Hori horrela izanik, ondoren ikusgai dagoen taulan, Gipuzkoako Udalerriek, 2011-2013 urteen artean izandako Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren kopuruak aurki ditzakegu.

Taula 3: Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren Bilakaera

<u>UDALERRIA</u>	<u>2011</u>	<u>2012</u>	<u>2013</u>	<u>2014</u>
1 ABALTZISKETA	215.954,39	238.110,81	237.019,86	255.108,35
2 ADUNA	252.628,44	277.916,60	295.700,30	314.760,82
3 AIZARNAZABAL	361.878,57	405.919,05	422.800,07	476.865,70
4 ALBIZTUR	212.827,93	230.920,80	231.998,86	250.636,46
5 ALEGIA	846.468,44	913.779,12	931.949,86	1.008.515,19
6 ALKIZA	236.852,02	253.505,39	257.425,76	283.017,22
7 ALTZO	250.815,61	274.996,01	269.957,48	293.480,99
8 AMEZKETA	510.546,45	548.341,27	538.373,95	586.998,86
9 ANDOAIN	7.174.253,38	7.673.489,52	7.735.261,02	8.384.358,50
10 ANOETA	894.910,94	971.022,24	965.026,07	1.056.315,98
11 ANTZUOLA	1.058.274,27	1.128.519,69	1.149.389,20	1.242.376,17
12 ARAMA	169.424,62	181.518,75	178.892,09	197.440,61
13 ARETXABALETA	3.282.996,09	3.507.686,57	3.544.735,51	3.916.154,22
14 ASTEASU	728.920,97	780.072,28	790.090,23	876.033,23
15 ATAUN	812.333,49	867.627,34	872.815,47	951.665,38
16 AIA	969.192,89	1.061.572,80	1.061.808,86	1.168.812,53
17 AZKOITIA	5.528.242,14	5.976.702,62	6.056.530,16	6.614.287,98
18 AZPEITIA	7.057.414,51	7.507.153,01	7.573.553,97	8.323.223,72
19 BEASAIN	6.637.832,60	7.145.508,84	7.209.827,68	7.883.616,62
20 BEIZAMA	160.528,48	174.785,54	176.360,28	183.502,50

UDALERRIA	2011	2012	2013	2014
21 BELAUNTZA	205.771,66	222.615,58	220.211,96	232.486,87
22 BERASTEGI	521.676,06	564.325,10	573.518,97	622.256,82
23 BERROBI	343.885,30	354.845,78	358.889,66	380.658,14
24 BIDEGOIAN	301.312,75	334.492,52	339.314,41	367.179,04
25 ZEGAMA	730.742,92	801.892,51	818.669,58	888.967,89
26 ZERAIN	182.270,69	200.235,33	205.544,08	224.397,11
27 ZESTOA	1.717.024,48	1.872.796,44	1.936.173,18	2.103.103,75
28 ZIZURKIL	1.367.784,64	1.451.353,41	1.471.817,95	1.661.111,24
29 DEBA	2.670.066,93	2.840.218,59	2.871.608,22	3.140.436,13
30 EIBAR	13.505.055,6	14.437.978,90	14.550.105,50	15.837.218,63
31 ELDUAIN	177.892,33	190.005,06	190.153,74	202.509,65
32 ELGOIBAR	5.517.626,26	5.957.314,04	6.014.950,30	6.572.233,20
33 ELGETA	548.222,26	590.240,49	586.116,23	642.486,16
34 ESKORIATZA	2.002.702,71	2.133.224,45	2.138.114,11	2.325.634,75
35 EZKIO-ITSASO	341.470,44	361.797,67	365.397,32	394.472,77
36 HONDARRIBIA	8.106.285,99	8.647.586,28	8.730.113,72	9.467.447,18
37 GAINZA	137.506,08	146.994,42	150.699,87	154.146,05
38 GABIRIA	281.499,43	312.179,92	315.639,93	335.639,92
39 GETARIA	1.292.237,17	1.408.449,38	1.413.484,43	1.543.099,68
40 HERNANI	9.459.201,18	10.129.572,80	10.183.022,50	11.049.508,91
41 HERNIALDE	228.786,59	248.944,67	257.185,29	277.325,53
42 IBARRA	2.130.269,89	2.281.028,76	2.270.034,73	2.453.770,78
43 IDIAZABAL	1.109.365,80	1.185.495,05	1.202.268,63	1.313.017,37
44 IKAZTEGIETA	279.056,84	302.802,25	304.198,32	328.210,39
45 IRUN	30.170.657,4	32.220.209,90	32.458.037,30	35.285.526,38
46 IRURA	740.519,66	823.486,64	849.053,76	931.665,03
47 ITSASONDO	348.193,62	379.784,46	382.895,25	421.738,50
48 LARRAUL	184.574,64	201.202,37	198.697,67	213.923,44
49 LAZKAO	2.616.481,81	2.794.427,40	2.834.511,94	3.098.631,14
50 LEABURU	250.657,63	273.310,78	269.891,16	290.522,75
51 LEGAZPI	4.293.959,25	4.577.932,18	4.575.664,89	4.950.203,14
52 LEGORRETA	726.972,56	779.662,83	798.482,28	841.998,71
53 LEZO	2.980.599,40	3.179.206,72	3.220.497,85	3.496.976,40
54 LIZARTZA	344.888,07	378.555,71	371.400,28	404.569,32
55 ARRASATE	10.871.605,7	11.549.617,60	11.599.356	12.606.899,63
56 MUTRIKU	2.468.983,26	2.650.329,57	2.672.259,75	2.945.601,00
57 MUTILOA	177.218,85	198.003,79	198.992,88	216.440,96
58 OLABERRIA	507.814,08	532.028,06	528.396,38	575.588,03
59 OÑATI	5.369.828,83	5.770.984,55	5.835.724,22	6.413.186,53
60 OREXA	131.754,75	144.478,86	145.692,71	154.010,80
61 ORIO	2.459.167,77	2.695.556,30	2.779.811,55	3.078.116,42
62 ORMAIZTEGI	645.200,49	689.241,19	693.221,29	743.868,78
63 OIARTZUN	4.884.262,75	5.228.995,99	5.295.023,30	5.751.342,52
64 PASAIA	7.902.849,36	8.410.893,68	8.451.972,23	9.146.507,19
65 SORALUCE	1.963.883,18	2.111.307,17	2.115.861,09	2.292.790,06
66 ERREZIL	344.803,88	358.165,40	362.124,13	387.237,21
67 ERRENTERIA	19.172.997,2	20.597.981,90	20.800.462,60	22.658.132,87

UDALERRIA	2011	2012	2013	2014
68 LEINTZ-GATZ.	192.450,21	205.684,78	212.882,19	218.386,42
69 DONOSTIA	97.697.600	104.537.959	105.591.317	114.627.191
70 SEGURA	675.639,56	755.098,95	776.057,40	840.740,41
71 TOLOSA	8.881.050,24	9.499.961,76	9.622.137,41	10.644.833,97
72 URNIETA	3.042.676,62	3.259.138,41	3.282.685,14	3.584.115,26
73 USURBIL	2.908.011,32	3.146.981,67	3.204.524,42	3.489.922,73
74 BERGARA	7.240.607,69	7.755.977,92	7.696.356,16	8.425.269,20
75 BILLABONA	2.846.350,42	3.058.201,73	3.098.369,21	3.368.361,09
76 ORDIZIA	4.757.919,28	5.103.862,29	5.176.990,67	5.612.571,58
77 URRETXU	3.340.817,28	3.597.071,98	3.604.006,47	3.919.194,43
78 ZALDIBIA	739.296,75	779.635,07	786.784,99	859.312,02
79 ZARAUTZ	11.032.525	11.780.014	11.881.166,80	12.902.928,90
80 ZUMARRAGA	4.915.163,33	5.218.665,31	5.238.381,81	5.684.137,39
81 ZUMAIA	4.551.525,76	4.876.650,51	4.972.588,26	5.471.285,98
82 MENDARO	940.645,12	999.913,89	1.019.759,44	1.126.307,23
83 LASARTE-ORIA	8.692.109,18	9.326.052,12	9.403.366,76	10.248.150,48
84 ASTIGARRAGA	2.293.439,79	2.457.694,36	2.533.764,28	2.859.565,72
85 BALIARRAIN	127.162,94	143.056,74	145.939,55	157.046,79
86 ORENDAIN	162.404,89	179.515,44	178.768,12	186.929,32
87 ALTZAGA	152.195,51	163.507,10	166.120,37	177.125,13
88 GAZTELU	150.047,09	166.382,76	169.869,65	179.195,11

Iturria: UDALAK FINANTZATZEKO FORU FONDOAREN BILAKAERA (EVOLUCIÓN DEL FONDO DE FINANCIACIÓN MUNICIPAL), www.udalgida.net –tik moldatua.

4 **BIZTANLERIA**

Jarraian, biztanleriak aztergai dugun denbora tartean izan dituen gora beheretan sartuko gara. Biztanleriak izaten duen trantsizio edo mugimenduak influentzia handia duenez lan honen baitan, beharrezkoa da aztergai diren urteetan Gipuzkoako Udalerrietan aurkitzen den biztanleria kopurua ezagutzea. Horretarako 2011 eta 2014 urteen bitartean Gipuzkoako 88 herrietan errolaturiko biztanle kopuruak islatuko ditugu ondorengo taula honetan:

Taula 4: Gipuzkoako biztanleria urtez urte

UDALERRIA	2011	2012	2013	2014	UDALERRIA	2011	2012	2013	2014
1 ABALTZIZKETA	321	324	330	329	45 IRUN	61.006	61.102	61.113	61.195
2 ADUNA	452	452	457	471	46 IRURA	1.619	1.640	1.665	1.671
3 AIZARNAZABAL	733	766	770	775	47 ITSASONDO	663	677	669	666

UDALERRIA	2011	2012	2013	2014	UDALERRIA	2011	2012	2013	2014
4 ALBIZTUR	312	316	322	327	48 LARRAUL	244	247	259	260
5 ALEGIA	1.778	1.771	1.756	1.744	49 LAZKAO	5.407	5.435	5.486	5.465
6 ALKIZA	357	371	380	373	50 LEABURU	383	384	362	373
7 ALTZO	405	411	409	400	51 LEGAZPI	8.684	8.639	8.638	8.608
8 AMEZKETA	970	976	972	968	52 LEGORRETA	1.526	1.483	1.491	1.468
9 ANDOAIN	14.689	14.646	14.630	14.655	53 LEZO	6.028	6.027	6.054	6.007
10 ANOETA	1.832	1.830	1.872	1.893	54 LIZARTZA	644	649	637	640
11 ANTZUOLA	2.187	2.177	2.189	2.193	55 ARRASATE	21.972	22.027	22.051	22.052
12 ARAMA	201	200	217	217	56 MUTRIKU	5.029	5.101	5.225	5.293
13 ARETXABALETA	6.725	6.850	6.930	6.995	57 MUTILOA	246	253	252	262
14 ASTEASU	1.491	1.512	1.513	1.523	58 OLABERRIA	937	941	942	957
15 ATAUN	1.669	1.680	1.681	1.700	59 OÑATI	11.033	11.151	11.202	11.282
16 AIA	2.002	2.026	2.038	2.039	60 OREXA	122	123	122	123
17 AZKOITIA	11.417	11.492	11.463	11.480	61 ORIO	5.270	5.382	5.524	5.694
18 AZPEITIA	14.351	14.506	14.509	14.580	62 ORMAIZTEGI	1.320	1.303	1.312	1.305
19 BEASAIN	13.717	13.850	13.792	13.812	63 OIARTZUN	10.006	10.018	9.995	9.970
20 BEIZAMA	182	175	170	167	64 PASAIA	15.945	15.885	15.849	15.929
21 BELAUNTZA	287	281	269	260	65 SORALUZE	3.995	3.981	4.018	3.991
22 BERASTEGI	1.061	1.062	1.067	1.056	66 ERREZIL	607	617	606	594
23 BERROBI	578	568	564	568	67 ERRETERIA	39.217	39.324	39.178	39.230
24 BIDEGOIAN	533	537	525	524	68 LEINTZ-GATZ.	272	256	258	244
25 ZEGAMA	1.553	1.553	1.547	1.527	69 DONOSTIA	186.185	186.409	186.500	186.126
26 ZERAIN	257	265	263	263	70 SEGURA	1.488	1.477	1.473	1.480
27 ZESTOA	3.655	3.661	3.650	3.656	71 TOLOSA	18.232	18.574	18.836	18.936
28 ZIZURKIL	2.797	2.910	2.994	2.997	72 URNIETA	6.167	6.218	6.214	6.198
29 DEBA	5.420	5.439	5.424	5.450	73 USURBIL	6.062	6.090	6.111	6.168
30 EIBAR	27.396	27.507	27.439	27.440	74 BERGARA	14.577	14.708	14.763	14.831
31 ELDUAIN	232	231	239	239	75 VILLABONA	5.863	5.872	5.882	5.888
32 ELGOIBAR	11.360	11.438	11.518	11.488	76 ORDIZIA	9.811	9.817	9.767	9.803
33 ELGETA	1.106	1.120	1.139	1.121	77 URRETXU	6.930	6.927	6.853	6.890
34 ESKORIATZA	4.043	4.054	4.064	4.090	78 ZALDIBIA	1.517	1.522	1.528	1.558
35 EZKIO-ITSASO	609	625	602	609	79 ZARAUTZ	22.697	22.650	22.760	22.890
36 HONDARRIBIA	16.499	16.518	16.795	16.894	80 ZUMARRAGA	10.007	10.024	10.094	9.950
37 GAINZA	130	121	119	120	81 ZUMAIA	9.461	9.581	9.626	9.734
38 GABIRIA	493	488	496	497	82 MENDARO	1.929	1.962	1.981	1.998
39 GETARIA	2.666	2.679	2.686	2.726	83 LASARTE-ORIA	17.889	17.922	18.024	18.082
40 HERNANI	19.296	19.284	19.354	19.601	84 ASTIGARRAGA	4.818	4.999	5.304	5.535
41 HERNIALDE	359	361	352	350	85 BALIARRAIN	122	127	131	130
42 IBARRA	4.290	4.269	4.268	4.256	86 ORENDAIN	186	181	192	193
43 IDIAZABAL	2.280	2.291	2.299	2.306	87 ALTZAGA	160	162	164	165
44 IKAZTEGIETA	470	469	464	464	88 GAZTELU	170	168	170	171

Iturria: Boletín oficial del estado (Nº 308)-tik (Lunes 22 de Diciembre de 2014) eta INE-tik moldatuta.

Hemen islaturik gelditzen dira beraz, Gipuzkoako udalerrri bakoitzean 4 urte hauetan zehar izandako biztanleri kopuruak. Datu gehigarri bezala Gipuzkoa osoko biztanleria batuta ere aipatuko dugu. Biztanleriak ondoren ikus daitekeen bezala gora egin du urtetik urtera Gipuzkoa mailan. Baina orokorreko datu honek ez digunez lan honetarako informazio garbiegirik ematen, ondoren sakonduko ditugu biztanleriak izandako mugimenduak herriz herri hartuta.

	2011	2012	2013	2014
GIPUZKOA GUZTIRA	709.607	712.097	713.818	715.148

5 HIPOTESIAREN AZALPENA

2012an onartutako Foru Arauak, udal zergen arloan aldaketak sartu zituenak, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren gainean xedapen bat sartu zuen etxebizitza hutsei eragingo ziena. Honekin, Udalek 100eko 150erainoko erretegia ezarri zezaketen etxebizitza hutsen gainean, helburua Udalek zerga altuago bat kobratzea zelarik. 2013.urtean, foru arau berria indarrean jarri zenean, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kopuruak gorakada bat izatea esperoko litzateke, baina gorakada hau, espero bezain altua izan ote da? Eta hau horrela ez bada, non egon liteke honen arrazoia?

Bigarren etxebizitza edo etxebizitza hutsak dituzten titularrek, erretegia hori ekiditeko, eraikina kokaturik dagoen udalerriko erroldan inskribatzea edo alta ematea nahikoa da. Lan honen bitartez egiaztatu nahi dena edo ezeztatuko dena honakoa da: Udalek ez dutela Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga dela eta sarreraren kopurua handitu (kopurua hazi bada ere, ez dauden etxebizitza kopuruekin bat), bai ordea etxebizitza hutsak aurkitzen ziren udalerrietan errolden kopuruak gora egin dutelako. Izan ere,

udalerrri batean biztanleriak gora egiten duenean, udalerrri horrek jasoko duen Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren zenbatekoa ere handiagoa izango da.

Hau horrela izan dela frogatu ahal izateko Gipuzkoako udalerrri guztiak aztertuz hasiko gara, bertako biztanleriaren mugimendu eta foru fondoaren aldaketak aztertuz hasiko dugularik analisia. Ondoren eskualdeka ere analisi bat egingo dugu eman den mugimendua eskualdeka nolakoa izan den ikusi ahal izateko, eta azkenik, mugimendu nabariena edo handiena eman den Udalerrietan zentratuko gara. Kontuan eduki behar dena, baita ere, hau guztia aztertzerako orduan, herrietako udalek etxebizitza hutsen gaineko errekgua aplikatzen duten edo ez da. Gure analisia egiterako orduan, 7.ataletik aurrera (hau da laginekin lan egiten hasten garenean), errekgu hori aplikatzen duten udalerriekin egingo dugu lan, errekgua aplikatzen ez bada, biztanleriak hori ekiditeko beharrik ez duelako eta beraz ez delako kasu horietan aldaketarik egongo. Momentuz ordea Gipuzkoa osoko biztanleriak izandako aldaketak behatuko ditugu.

6 KONTZEPTU EZBERDINEN BILAKAERA HIPOTESIAREN AZTERKETAN

6.1 BIZTANLERIAREN MUGIMENDUA GIPUZKOA MAILAN

Lehenago aipatu bezala, azterketarekin hasteko lehenengo behatuko dugun kontzeptua, biztanleriaren mugimendua izango da. Taula batean islaturik jarriko ditugu 2011 eta 2014 urteen bitartean (hauek barne) Gipuzkoako Udalerrri bakoitzean erroldaturiko biztanleri kopuruak, eta hauek izan dituzten igoerak eta jaitsierak ere bai. Biztanleria urte batetik bestera hazi egin bada, igoera hori kolore berdez islaturik egongo da. Aldiz, kopuruak jaitsiera bat jasan badu, hau kolore gorritz aurkitu ahal izango da. Azkenik 4 urteak batera harturik izan den bilakaera ere islaturik dago ondorengo taula honetan.

Taula 5: Gipuzkoako biztanleriak izandako bilakaera (2011-2014)

UDALERRIA	2011	2012	Bilak. (2011-2012)	2013	Bilak. (2012-2013)	2014	Bilak. (2013-2014)	Bilakaera Guztira
1 ABALTZIKETA	321	324	3	330	6	329	-1	8
2 ADUNA	452	452	0	457	5	471	14	19
3 AIZARNAZABAL	733	766	33	770	4	775	5	42
4 ALBITZUR	312	316	4	322	6	327	5	15
5 ALEGIA	1.778	1.771	-7	1.756	-15	1.744	-12	-34
6 ALKIZA	357	371	14	380	9	373	-7	16
7 ALTZO	405	411	6	409	-2	400	-9	-5
8 AMEZKETA	970	976	6	972	-4	968	-4	-2
9 ANDOAIN	14.689	14.646	-43	14.630	-16	14.655	25	-34
10 ANOETA	1.832	1.830	-2	1.872	42	1.893	21	61
11 ANZUOLA	2.187	2.177	-10	2.189	12	2.193	4	6
12 ARAMA	201	200	-1	217	17	217	0	16
13 ARETXABALETA	6.725	6.850	125	6.930	80	6.995	65	270
14 ASTEASU	1.491	1.512	21	1.513	1	1.523	10	32
15 ATAUN	1.669	1.680	11	1.681	1	1.700	19	31
16 AIA	2.002	2.026	24	2.038	12	2.039	1	37
17 AZKOITIA	11.417	11.492	75	11.463	-29	11.480	17	63
18 AZPEITIA	14.351	14.506	155	14.509	3	14.580	71	229
19 BEASAIN	13.717	13.850	133	13.792	-58	13.812	20	95
20 BEIZAMA	182	175	-7	170	-5	167	-3	-15
21 BELAUNTZA	287	281	-6	269	-12	260	-9	-27
22 BERASTEGI	1.061	1.062	1	1.067	5	1.056	-11	-5
23 BERROBI	578	568	-10	564	-4	568	4	-10
24 BIDEGOIAN	533	537	4	525	-12	524	-1	-9
25 ZEGAMA	1.553	1.553	0	1.547	-6	1.527	-20	-26
26 ZERAIN	257	265	8	263	-2	263	0	6
27 ZESTOA	3.655	3.661	6	3.650	-11	3.656	6	1
28 ZIZURKIL	2.797	2.910	113	2.994	84	2.997	3	200
29 DEBA	5.420	5.439	19	5.424	-15	5.450	26	30
30 EIBAR	27.396	27.507	111	27.439	-68	27.440	1	44
31 ELDUAIN	232	231	-1	239	8	239	0	7
32 ELGOIBAR	11.360	11.438	78	11.518	80	11.488	-30	128
33 ELGETA	1.106	1.120	14	1.139	19	1.121	-18	15
34 ESKORIATZA	4.043	4.054	11	4.064	10	4.090	26	47
35 EZKIO-ITSASO	609	625	16	602	-23	609	7	0
36 HONDARRIBIA	16.499	16.518	19	16.795	277	16.894	99	395
37 GAINZA	130	121	-9	119	-2	120	1	-10
38 GABIRIA	493	488	-5	496	8	497	1	4
39 GETARIA	2.666	2.679	13	2.686	7	2.726	40	60
40 HERNANI	19.296	19.284	-12	19.354	70	19.601	247	305
41 HERNIALDE	359	361	2	352	-9	350	-2	-9
42 IBARRA	4.290	4.269	-21	4.268	-1	4.256	-12	-34
43 IDIAZABAL	2.280	2.291	11	2.299	8	2.306	7	26
44 IKAZTEGIETA	470	469	-1	464	-5	464	0	-6
45 IRUN	61.006	61.102	96	61.113	11	61.195	82	189
46 IRURA	1.619	1.640	21	1.665	25	1.671	6	52

UDALERRIA	2011	2012	Bilak. (2011-2012)	2013	Bilak. (2012-2013)	2014	Bilak. (2013-2014)	Bilakaera Guztira
47 ITSASONDO	663	677	14	669	-8	666	-3	3
48 LARRAUL	244	247	3	259	12	260	1	16
49 LAZKAO	5.407	5.435	28	5.486	51	5.465	-21	58
50 LEABURU	383	384	1	362	-22	373	11	-10
51 LEGAZPI	8.684	8.639	-45	8.638	-1	8.608	-30	-76
52 LEGORRETA	1.526	1.483	-43	1.491	8	1.468	-23	-58
53 LEZO	6.028	6.027	-1	6.054	27	6.007	-47	-21
54 LIZARTZA	644	649	5	637	-12	640	3	-4
55 ARRASATE	21.972	22.027	55	22.051	24	22.052	1	80
56 MUTRIKU	5.029	5.101	72	5.225	124	5.293	68	264
57 MUTILOA	246	253	7	252	-1	262	10	16
58 OLABERRIA	937	941	4	942	1	957	15	20
59 OÑATI	11.033	11.151	118	11.202	51	11.282	80	249
60 OREXA	122	123	1	122	-1	123	1	1
61 ORIO	5.270	5.382	112	5.524	142	5.694	170	424
62 ORMAIZTEGI	1.320	1.303	-17	1.312	9	1.305	-7	-15
63 OIARTZUN	10.006	10.018	12	9.995	-23	9.970	-25	-36
64 PASAIA	15.945	15.885	-60	15.849	-36	15.929	80	-16
65 SORALUZE	3.995	3.981	-14	4.018	37	3.991	-27	-4
66 ERREZIL	607	617	10	606	-11	594	-12	-13
67 ERRENTERIA	39.217	39.324	107	39.178	-146	39.230	52	13
68 LEINTZ-GATZAGA	272	256	-16	258	2	244	-14	-28
69 DONOSTIA	186.185	186.409	224	186.500	91	186.126	-374	-59
70 SEGURA	1.488	1.477	-11	1.473	-4	1.480	7	-8
71 TOLOSA	18.232	18.574	342	18.836	262	18.936	100	704
72 URNIETA	6.167	6.218	51	6.214	-4	6.198	-16	31
73 USURBIL	6.062	6.090	28	6.111	21	6.168	57	106
74 BERGARA	14.577	14.708	131	14.763	55	14.831	68	254
75 VILLABONA	5.863	5.872	9	5.882	10	5.888	6	25
76 ORDIZIA	9.811	9.817	6	9.767	-50	9.803	36	-8
77 URRETXU	6.930	6.927	-3	6.853	-74	6.890	37	-40
78 ZALDIBIA	1.517	1.522	5	1.528	6	1.558	30	41
79 ZARAUTZ	22.697	22.650	-47	22.760	110	22.890	130	193
80 ZUMARRAGA	10.007	10.024	17	10.094	70	9.950	-144	-57
81 ZUMAIA	9.461	9.581	120	9.626	45	9.734	108	273
82 MENDARO	1.929	1.962	33	1.981	19	1.998	17	69
83 LASARTE-ORIA	17.889	17.922	33	18.024	102	18.082	58	193
84 ASTIGARRAGA	4.818	4.999	181	5.304	305	5.535	231	717
85 BALIARRAIN	122	127	5	131	4	130	-1	8
86 ORENDAIN	186	181	-5	192	11	193	1	7
87 ALTZAGA	160	162	2	164	2	165	1	5
88 GAZTELU	170	168	-2	170	2	171	1	1
GUZTIRA	709.607	712.097	2.490	713.818	1.721	715.148	1.330	5.541

Iturria: Boletín oficial del estado (Nº 308)-tik (Lunes 22 de Diciembre de 2014) eta INE-tik moldatuta.

Taula honetan, Gipuzkoako Udalerrri guztiak sartuta daude, baina banan-banan guztiak aipatzea sakonegia litzatekeenez, gora-behera nabarienak dituzten udalerrriak aipatuko ditugu.

Igoera nagusia edo nabarmena izan duten herriak aipatzen hasiko gara. 4 urte hauetan zehar 717 biztanleko gorakada jasan duen herria Astigarraga da. Bertan, 4.718 biztanle zeuden 2011. urtean eta 2014. urterako 5.535 izatera pasa zen kopurua, igoera hori konstanteki gorakorra izan zelarik. Astigarragaren atzetik, 704ko biztanleria igoerarekin Tolosa aurkitzen da. Tolosako biztanleriaren hazkundera ere konstanteki gorakorra izan da lau urteotan. Orio Udalerrriak jarraitzen die atzetik, bertan biztanleria igoera 424koa izan delarik. Eta hauen atzetik Hondarribia, Hernani edota Aretxabaleta bezalako herriak kokatzen dira, 395, 305 eta 270 biztanle gehiagorekin kokatu direlarik hurrenik hurren.

Biztanleriaren beherakada jasan duten Udalerrien artean, ez dago hainbesteko beherakada nabarmenik. Legazpi izan da kopuruan murrizketa handiena jasan duena eta murrizketa hau 76 biztanlekoa besterik ez da izan. 2011ko 8.684 biztanletik, 2014ko 8.608 biztanletara pasa da. Beherakada lehen bi urteen artean 45 pertsonakoa izan zen, ondoren pertsona bakar batean murriztu zen kopurua eta azkenik, 2013 eta 2014 bitartean 30 pertsonatako beherakada jasan du. Legazpiz gain, beste hiru Udalerrri aipatuko ditugu, Donostia (59 biztanle gutxiagorekin), Legorreta (58 biztanleko murrizketa batekin) eta Zumarraga (57 biztanleko beherakada jasanik). Hiru Udalerrri hauetan beherakada ez da konstantea izan. Baina Donostia eta Zumarragaren kasuan izan da bilakaera irregularrena. Bi Udalerrri hauetan, 2011tik hasi eta 2013 urtera arte, bilakaera gorakorra izan zen, baina 2013 eta 2014. urteen artean izugarritzko beherakada jasan zuten, guztira biztanleriak behera egin du bertan.

Kopuru absolutuak erreparatu ditugu aurreko taularen bidez, baina ondoren beste bi taulez baliatuta, interesgarria iruditzen zait, biztanleriaren mugimendua portzentajeak erabiliz islatzea. Ez baita berdina Donostia bezalako hiri batek 50 biztanleko jaitsiera izatea edo beste herri txiki batean ematea beherakada berdina. Portzentajeekin lan eginez, udalerriek proportzioan izan dituzten gorakadak eta

beherakadak hauteman ahal izango ditugu. Berriro ere 88 udalerrien taula jarri nezake ondoren, baina portzentualki gora-behera handienak izan dituzten udalerriak bakarrik aurkeztuko ditut bertan. Eranskinen atalean taula osoa izango da ikusgai.

Ondorengo taulan igoera handiena jasan duten 15 udalerrri aurkitzen dira. Bertan izan duten igoera portzentuala ikusi daiteke, bai urtez urte eta baita guztira ere, 2011 eta 2014 urteen artean.

Taula 6: Biztanlerian bilakaera gorakor handiena izan duten Udalerriak

UDALERRIA	2011	2012	2011-2012		2013	2012-2013		2014	2013-2014		Izandako bilakera (2011-2014)	
			Kop.	%		Kop.	%		Kop.	%	Kop.	%
84 ASTIGARRAGA	4.818	4.999	181	103,76%	5.304	305	106,10%	5.535	231	104,36%	717	114,88%
61 ORIO	5.270	5.382	112	102,13%	5.524	142	102,64%	5.694	170	103,08%	424	108,05%
12 ARAMA	201	200	-1	99,50%	217	17	108,50%	217	0	100,00%	16	107,96%
28 ZIZURKIL	2.797	2.910	113	104,04%	2.994	84	102,89%	2.997	3	100,10%	200	107,15%
48 LARRAUL	244	247	3	101,23%	259	12	104,86%	260	1	100,39%	16	106,56%
85 BALIARRAIN	122	127	5	104,10%	131	4	103,15%	130	-1	99,24%	8	106,56%
57 MUTILOA	246	253	7	102,85%	252	-1	99,60%	262	10	103,97%	16	106,50%
3 AIZARNAZABAL	733	766	33	104,50%	770	4	100,52%	775	5	100,65%	42	105,73%
56 MUTRIKU	5.029	5.101	72	101,43%	5.225	124	102,43%	5.293	68	101,30%	264	105,25%
4 ALBIZTUR	312	316	4	101,28%	322	6	101,90%	327	5	101,55%	15	104,81%
6 ALKIZA	357	371	14	103,92%	380	9	102,43%	373	-7	98,16%	16	104,48%
2 ADUNA	452	452	0	100,00%	457	5	101,11%	471	14	103,06%	19	104,20%
13 ARETXABALETA	6.725	6.850	125	101,86%	6.930	80	101,17%	6.995	65	100,94%	270	104,01%
71 TOLOSA	18.232	18.574	342	101,88%	18.836	262	101,41%	18.936	100	100,53%	704	103,86%
82 MENDARO	1.929	1.962	33	101,71%	1.981	19	100,97%	1.998	17	100,86%	69	103,58%

Iturria: Boletín oficial del estado (Nº 308)-tik (Lunes 22 de Diciembre de 2014) eta INE-tik moldatua.

Taulan honen gorenean, biztanlerian igoera handiena jasan dutenen artean, Astigarraga eta Orío aurkitzen dira. Bi udalerrri hauek bai kopuru aldetik eta bai ehunekoei erreparatuz gora egin dute nabari. Astigarraga izan da bai kopuruz eta bai ehunekoei begira gora gehien egin duena, 717 biztanle gehiagorekin kokatu delarik eta gainera %114,88 gorakada izan duelarik.

Astigarragaren atzetik kopuruari zegokionean, Tolosa genuen, baina orain ikusi daiteke Tolosak proportzioan izan duen hazkundera ez dela hain handia edo nabarmena izan. %103,86an igo da bertako biztanleria 2011tik 2014rainoko denbora tartean. Oriok izan duen hazkundera ehunekoei begira %102-%103 bitartean egon da urtez urte eta honek guztirako hazkundera %108 ingurukoa izatea ekarri du.

Bi udalerrri hauen atzetik Arama, Zizurkil, Larraul, Baliarrain edo Mutiloa bezalako Udalerrriak kokatzen dira. Guzti hauek ez dira oso biztanleria altuko herriak eta honek eragiten du hazkundera ehunekotan altua izatea. Kopuruari erreparatzen badiogu ordea, ez da hain nabarmena hauek izan duten igoera.

Lehen aipaturiko, Tolosa eta Aretxabaleta ere ikusi ditzakegu taula honetan barneraturik baina beheragoko postu batzuetan (ehuneko 103 eta 104ko igoerarekin gutxi gora-behera). Biztanleria aldetik, taula honetako beste udalerriek baino indar handiagoa edukitzeak eragiten die, ehuneko zenbatekoei dagokionez igoera ez hain altua izatea.

Biztanleriaren igoera ikusirik, jaitsiera bat jasan duten udalerrietara pasatuko gara ondoren. Horretarako ondorengo beste taula honetan zentratuko gara.

Taula 7: Biztanleriaren bilakaeran joera beherakor handiena izan duten Udalerrriak

UDALERRIA	2011	2012	2011-2012		2013	2012-2013		2014	2013-2014		Izandako bilakera (2011-2014)	
			Kop.	%		Kop.	%		Kop.	%	Kop.	%
68 LEINTZ-GATZAGA	272	256	-16	94,12%	258	2	100,78%	244	-14	94,57%	-28	89,71%
21 BELAUNTZA	287	281	-6	97,91%	269	-12	95,73%	260	-9	96,65%	-27	90,59%
20 BEIZAMA	182	175	-7	96,15%	170	-5	97,14%	167	-3	98,24%	-15	91,76%
37 GAINZA	130	121	-9	93,08%	119	-2	98,35%	120	1	100,84%	-10	92,31%
52 LEGORRETA	1.526	1.483	-43	97,18%	1.491	8	100,54%	1.468	-23	98,46%	-58	96,20%
50 LEABURU	383	384	1	100,26%	362	-22	94,27%	373	11	103,04%	-10	97,39%
41 HERNIALDE	359	361	2	100,56%	352	-9	97,51%	350	-2	99,43%	-9	97,49%
66 ERREZIL	607	617	10	101,65%	606	-11	98,22%	594	-12	98,02%	-13	97,86%
5 ALEGIA	1.778	1.771	-7	99,61%	1.756	-15	99,15%	1.744	-12	99,32%	-34	98,09%
23 BERROBI	578	568	-10	98,27%	564	-4	99,30%	568	4	100,71%	-10	98,27%
24 BIDEGOIAN	533	537	4	100,75%	525	-12	97,77%	524	-1	99,81%	-9	98,31%
25 ZEGAMA	1.553	1.553	0	100,00%	1.547	-6	99,61%	1.527	-20	98,71%	-26	98,33%

UDALERRIA	2011	2012	2011-2012		2013	2012-2013		2014	2013-2014		Izandako bilakera (2011-2014)	
			Kop.	%		Kop.	%		Kop.	%	Kop.	%
44 IKAZTEGIETA	470	469	-1	99,79%	464	-5	98,93%	464	0	100,00%	-6	98,72%
7 ALTZO	405	411	6	101,48%	409	-2	99,51%	400	-9	97,80%	-5	98,77%
62 ORMAIZTEGI	1.320	1.303	-17	98,71%	1.312	9	100,69%	1.305	-7	99,47%	-15	98,86%

Iturria: Boletín oficial del estado (Nº 308)-tik (Lunes 22 de Diciembre de 2014) eta INE-tik moldatuta.

Jaitsiera izan duten Udalerriekin ere, Igoera izan dutenekin gertatu zaigun kasua ematen da. Kopuru aldetik, Legazpi, Legorreta, Donostia eta Zumarraga aipatu ditugu lehenago. Portzentajeetan arreta jartzen badugu ordea, hauetatik, Legorreta bakarrik aurkituko dugu goi postuetan. Izan ere Leintz-Gatzagak izan du jaitsierarik handiena ehunekoei dagokionez, baina kopuruei begiratzuz konturatuko gara 28 biztanletan bakarrik murriztu duela kopurua. Honen arrazoia da, udalerrri honek 272 biztanle bakarrik zituela 2011. urtean, eta proportzioan beherakada handia dela, biztanleria handiagoko herriekin alderatuz.

Leintz-Gatzagaren atzetik agertzen diren ondorengo hiru Udalerriren kasua ere berdina da. 100-300 arteko biztanleria izanik, ez dute kopuruan beherakada handiegirik behar, portzentaje altua izateko.

Hiriburua izanik, Donostiaren kasua hartuko dugu baita ere adibide bezala, kopuruari zegokionean udalerrri gehientsuenak baino beherakada handiagoa izan zuelako eta ehunekoen aldetik, ez delako lehenengo 15en artean aurkitu ere egiten.

UDALERRIA	2011	2012	2011-2012		2013	2012-2013		2014	2013-2014		Izandako bilakera (2011-2014)	
			Kop.	%		Kop.	%		Kop.	%	Kop.	%
69 DONOSTIA	186.185	186.409	224	100,12%	186.500	91	100,05%	186.126	-374	99,80%	-59	99,97%

Donostiak, 59 biztanleko murrizketa jasan du guztira denbora tarte honetan, kopuruari dagokionean, biztanleriaren beherakadan bigarren kopururik handiena. Ehunekoei begiratuta Donostiak %0.03ko portzentajeetan besterik ez du behera egin. Izan ere 186.100-186.500 biztanleria inguru dituen hiriburu batentzat, 59 biztanleko

aldea ez da batere nabaria. Kontuan edukitzekoa da baita ere, 2011tik 2013ra Donostiak 315 biztanlerekin gora egin duela eta azken urtean jasan duela izugarrizko beherakada. Udalerrietako erroldetan ematen ari den mugimendua aztertzerako orduan oso garrantzitsua izango zaigu igoera hori ere kontuan hartzea.

Aipatu beharra dago, biztanlerian ematen diren aldaketa hauek guztiak ez direla errolda aldaketen ondorio. Heriotza eta jaiotza tasen eraginak, nahiz immigrazioak duen influentziak ere izan dezakete eragina biztanleriaren zenbatekoek pairatzen dituzten gorakada edo beherakadetan. Kontzeptu horien aipamen bat ere egingo da, bigarren laginarekin lanean hasten garenean, azterketa horretan biztanleria eta etxebizitza hutsen kopuruetan zentratuko baikara bete-betean.

6.2 BIZTANLERIAREN MUGIMENDUA ESKUALDEKA

Gipuzkoako eskualdeak modu bat baino gehiagotan sailkatzeko aukera dago. Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaraturiko informazioan zentratutako sailkapena erabiliko dugu lan honetan Eskualde ezberdinak sailkatzeko. Sailkapena, beraz, modu honetara egingo genuke:

Banaketa tradizionalaren arabera, Gipuzkoako lurraldea hiru sektoretan bereiz daiteke: itsasbazterra, erdialdea eta goialdea. Itsasbazterreko sektorea itsasoraino heltzen diren erliebez osaturik dago. Itsasadar, badia eta arrantza-portu txikiak ere badira, merkataritza- industria- eta turismo-jarduerei loturikoak. Erdialdeko sektorea Deba, Urola eta Oria ibaietako haranen zati handi bat hartzen duena da. Goialdeko sektorean Arantzazuko Santutegia da nabarmentzekoa, baina honetaz gain aipatzekoak dira baita Aralar eta Aizkorri mendi-multzoak ere.

Banaketa tradizional honetaz gain, geografiaren ikuspuntuaren arabera, ondoren aipatuko diren eskualdeak ere aipa daitezke: Bidasoa, Donostialdea, Deba Behea, Deba Garaia, Urola Kosta, Goierri eta Tolosaldea. Guk, azkenik aipaturiko eskualdeen sailkapen hau erabiliko dugu egiten ari garen analisi honetarako.

ESKUALDEEN BANAKETA

- Bidasoa Behea: (Bidasoa) Hondarribia eta Irun.
- Donostialdea
 - Oiartzunaldea: Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia.
 - Donostia: Donostia / San Sebastian eta Astigarraga.
 - Hernanialdea: Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil.
- Urola Kosta
 - Zarautzaldea: Aia, Getaria, Orio eta Zarautz.
 - Zumaialdea: Aizarnazabal, Zestoa eta Zumaia.
 - Iraurgi: Azkoitia, Azpeitia, Beizama eta Errezil.
- Deba Behea
 - Debaldea: Deba eta Mutriku.
 - Elgoibar: Elgoibar eta Mendaro.
 - Eibar Ego: Eibar eta Soraluze.
- Deba Garaia
 - Bergaraldea: Antzuola, Bergara eta Elgeta.
 - Leintz: Aretxabaleta, Eskoriatza, Leitz-Gatzaga eta Arrasate.
 - Oñati: Oñati.
- Goierri
 - Urola Garaia: Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga.
 - Oria Garaia: Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Zerain, Gaintza, Gabiria, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia eta Zegama.
- Tolosaldea
 - Zumebatzarrea: Abaltzizketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Gaztelu, Legorreta, Lizartza, Orexa, Orendain eta Tolosa.
 - Herniobeia: Aduna, Asteasu, Larraul, Billabona eta Zizurkil.


Eginiko banaketa honen arabera, eskualdeak finkatu ondoren, hauetako bakoitzeko biztanleriaren zenbatak totalak kalkulatu eta ondorengo taulan islatu ditugu, 2011 urtetik hasi eta 2014ra arteko datuak sartuz bertan.

Taula 8: Biztanleria eskualdeka

ESKUALDEAK	2011	2012	2013	2014
1.BIDASOA BEHEA	77.505	77.620	77.908	78.089
2.DONOSTALDEA	326.302	326.822	327.213	327.501
3.UROLA KOSTA	73.041	73.535	73.802	74.335
4.DEBA BEHEA	55.129	55.428	55.605	55.660
5.DEBA GARAIA	61.915	62.343	62.596	62.808
6.GOIERRI	68.079	68.250	68.194	68.160
7.TOLOSALDEA	47.636	48.099	48.500	48.595
GUZTIRA	<u>711.618,00</u>	<u>714.109,00</u>	<u>715.831,00</u>	<u>717.162,00</u>

Iturria: Boletín oficial del estado (Nº 308)-tik (Lunes 22 de Diciembre de 2014) eta INE-tik moldatua

Grafikoa 1: Gipuzkoako biztanleriak eskualdeka banatuta izan duen bilakaera



Iturria: Boletín oficial del estado (Nº 308)-tik (Lunes 22 de Diciembre de 2014) INE-tik moldatuta

Goiko taula eta grafiko hauetan, esan bezala, biztanleriaren bilakaera ikusten dugu berriro, kasu honetan eskualdeka banatuta ordea. Ikusi ahal dugu, eskualde guztietako biztanleriak gora egin duela 2011tik 2014ra, nahiz eta kasu guztietan igoera hori ez den konstantea izan. Goierri da salbuespen bakarra. Zazpi eskualde hauetatik, seiak gorakada konstante bat izan dute, Goierrik izan ezik. Bertako biztanleria 2011tik 2012 igo egiten da, baina hurrengo urte tartetean behera egiten du, nahiz eta kopuru ez oso altuan.

Beraz Gipuzkoa mailan esan daiteke eskualdeen artean ez dela trantsizio edo eskualde batetik besterako mugimendu nabaririk izan.

Biztanleria eskualde guztietan hazi izanaren arrazoa, Gipuzkoa kanpotik biztanleria bertara etorri izana izan daiteke, edo baliteke jaiotza tasa hazi edo heriotza tasa murriztu izana ere. Hala ere, Eskualde guztietako biztanleria ez da neurri berebean hazi, eta honi ere begiratu edo erreparatuko diogu.

Taula 9: Biztanleriaren bilakaera (2011-2014) eskualdeka

	2011	BILAKAERA KOP.	BILAKAERA %	2014
1.BIDASOA BEHEA	77.505	584	100,75%	78.089
2.DONOSTALDEA	326.302	1.199	100,37%	327.501
3.UROLA KOSTA	73.041	1.294	101,77%	74.335
4.DEBA BEHEA	55.129	531	100,96%	55.660
5.DEBA GARAIA	61.915	893	101,44%	62.808
6.GOIERRI	68.079	81	100,12%	68.160
7.TOLOSALDEA	47.636	959	102,01%	48.595
GUZTIRA	711.618	5.541	100,78%	717.162

Iturria: Boletín oficial del estado (Nº 308)-tik (Lunes 22 de Diciembre de 2014) eta INE-tik moldatuta

Kopuruaren araberako bilakaerari erreparatuko diogu lehenengo. Kopuru aldetik gehien hazi diren eskualdeak, Urola Kosta eta Donostialdea dira. Tolosaldeak gertutik jarraitzen dielarik. Geroago, analisia aurrera doan heinean, ikusi beharko da Eskualde hauetan etxebizitza hutsen kopurua hasiera batean zenbatekoa zen eta urte hauetan

zehir aldaketarik izan duten bai etxebizitza hutsen kopuruak, bai eta Ondasun Higiezinaren Zergaren bidez jasotako kopuruak ere. Baina, printzipioz, Urola Kosta eta Donostialdea, kostaldean aurkitzen direnez eta turismoa hauetan nagusi denez, iruditzen zait posible dela etxebizitza huts gehiago aurkitzea bertan, beste eskualdetan baino. Eta uste dut, posible dela gure hipotesiaren emaitzarentzat datu hau esanguratsua izatea.

Ehunekoetan zentratzen bagara ere, Tolosaldea eta Urola kosta goi postuetan ikus ditzakegu, baina Donostialdeak ez du ehunekoetan hainbesteko igoera garbirik pairatu. Honen arrazoia, bere biztanleria kopuru itzela da. Izan ere, beste eskualde guztiekin alderatzen badugu, nabaria da biztanleria kopuru aldetik duen indarra.

Hazkunde handiena izan duten hiru eskualde hauen barnean, biztanleei begira hazkunde handiena izan duten Udalerriak aipatuz jarraituko dugu. Urola Kostaren barruan, Zumaia, Zarautz, Orrio eta Azpeitiak izan dute bilakaera gorakor garrantzitsuena.

Donostialdea hartzen badugu, Gipuzkoa mailako azterketan agertu zaigun Astigarragak atentzioa deitzen digu eta horretaz gain Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbil dira hazkunderik handiena izan dutenak.

Eta azkenik, Tolosaldean murgiltzen bagara, Tolosa eta Zizurkil dira nabarienenak.

Atal honi amaiera emateko, eskualde bakoitzean igoera hori handiagoa egiten lagundu ez duten udalerriak aipatuko ditugu, hau da jaitsiera bat izan dutenak. Donostialdearen kasuan, hainbeste aipatu dugun Donostia bera izan da orokorrean biztanleri aldetik behera egin duena, beherakada hau azken urtekoa bakarrik izan dela ahaztu behar ez dugun arren.

Urola kostan Errezil eta Beizama izan dira jaitsiera jasan duten bakarrak baina jaitsiera hori oso txikia izan da bietan eta beraz ez diogu garrantzi handiegirik emango. Deba Behearen kasuan ere berdina gertatzen da, izan ere, Soraluek bakarrik izan du beherakada biztanlerian eta beherakada hau 4 pertsonakoa besterik ez da izan.

Deba Garaiari dagokionean, Leintz-Gatzaga da behera egin duena eta jaitiera hori zertxobait handiagoa izan arren, ez da 28 pertsonatik igotzen. Goierriren kasuan, lehen esan dugun bezala, ez da urtero bilakaera gorakorra izan eta bertan udalerrri gehiagok izan dute biztanleria jaisteko joera. Hauen artean beherakada handienekin, Legazpi Urretxu eta Zumarraga agertzen dira.

Eta azkenik, Tolosaldea aipatzea besterik ez zaigu falta. Bertan ere zenbait udalerririk dute beherako joera hori eta horien artean aipatzekoena, Legorreta, Alegia edota Ibarra litezke.

6.3 FORU FONDOAREN BILAKAERA GIPUZKOA MAILAN

Biztanleria kontzeptutzat hartuta egin dugun analisia errepikatuko dugu, oraingoan Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren (UFFF) aztergai hartuta. Udalerrri bakoitzak, nagusiki, duen biztanle kopuruaren arabera kobratuko du UFFF. Beraz, behatuko dugu, ea biztanleriaren kasuan eman den trantsizio bera egon den 2011-2014 denbora tartean, kontzeptu honi dagokionez.

Horretarako Gipuzkoa mailatik hasiko gara eta ondorengo taulan ikusi ahal izango dugu Udalerrri bakoitzak jasoriko Foru Fondo horrek kopurua zenbatekoa izan den.

Taula 10: Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren bilakaera Gipuzkoako Udalerrietan

<u>UDALERRIA</u>	<u>2011</u>	<u>2012</u>	<u>Bilak. (2011-2012)</u>	<u>2013</u>	<u>Bilak. (2012-2013)</u>	<u>2014</u>	<u>Bilak. (2013-2014)</u>	<u>Bilak. Guztira</u>
1 ABALTZIKETA	215.954,39	238.110,81	22.156,42	237.020	-1.090,81	255.108,35	18.088,35	39.153,96
2 ADUNA	252.628,44	277.916,60	25.288,16	295.700	17.783,40	314.760,82	19.060,82	62.132,38
3 AIZARNAZAB.	361.878,57	405.919,05	44.040,48	422.800	16.880,95	476.865,70	54.065,70	114.987,13
4 ALBIZTUR	212.827,93	230.920,80	18.092,87	231.999	1.078,20	250.636,46	18.637,46	37.808,53
5 ALEGIA	846.468,44	913.779,12	67.310,68	931.950	18.170,88	1.008.515,19	76.565,19	162.046,75
6 ALKIZA	236.852,02	253.505,39	16.653,37	257.426	3.920,61	283.017,22	25.591,22	46.165,20
7 ALTZO	250.815,61	274.996,01	24.180,40	269.957	-5.039,01	293.480,99	23.523,99	42.665,38
8 AMEZKETA	510.546,45	548.341,27	37.794,82	538.374	-9.967,27	586.998,86	48.624,86	76.452,41
9 ANDOAIN	7.174.253,38	7.673.489,52	499.236,14	7.735.261	61.771,48	8.384.358,50	649.097,50	1.210.105,12
10 ANOETA	894.910,94	971.022,24	76.111,30	965.026	-5.996,24	1.056.315,98	91.289,98	161.405,04

<u>UDALERRIA</u>	<u>2011</u>	<u>2012</u>	<u>Bilak. (2011-2012)</u>	<u>2013</u>	<u>Bilak. (2012-2013)</u>	<u>2014</u>	<u>Bilak. (2013-2014)</u>	<u>Bilak. Guztira</u>
11 ANTZUOLA	1.058.274,27	1.128.519,69	70.245,42	1.149.389	20.869,31	1.242.376,17	92.987,17	184.101,90
12 ARAMA	169.424,62	181.518,75	12.094,13	178.892	-2.626,75	197.440,61	18.548,61	28.015,99
13 ARETXABAL.	3.282.996,09	3.507.686,57	224.690,48	3.544.736	37.049,43	3.916.154,22	371.418,22	633.158,13
14 ASTEASU	728.920,97	780.072,28	51.151,31	790.090	10.017,72	876.033,23	85.943,23	147.112,26
15 ATAUN	812.333,49	867.627,34	55.293,85	872.815	5.187,66	951.665,38	78.850,38	139.331,89
16 AIA	969.192,89	1.061.572,80	92.379,91	1.061.809	236,20	1.168.812,53	107.003,53	199.619,64
17 AZKOITIA	5.528.242,14	5.976.702,62	448.460,48	6.056.530	79.827,38	6.614.287,98	557.757,98	1.086.045,84
18 AZPEITIA	7.057.414,51	7.507.153,01	449.738,50	7.573.554	66.400,99	8.323.223,72	749.669,72	1.265.809,21
19 BEASAIN	6.637.832,60	7.145.508,84	507.676,24	7.209.828	64.319,16	7.883.616,62	673.788,62	1.245.784,02
20 BEIZAMA	160.528,48	174.785,54	14.257,06	176.360	1.574,46	183.502,50	7.142,50	22.974,02
21 BELAUNTZA	205.771,66	222.615,58	16.843,92	220.212	-2.403,58	232.486,87	12.274,87	26.715,21
22 BERAATEGI	521.676,06	564.325,10	42.649,04	573.519	9.193,90	622.256,82	48.737,82	100.580,76
23 BERROBI	343.885,30	354.845,78	10.960,48	358.890	4.044,22	380.658,14	21.768,14	36.772,84
24 BIDEGOIAN	301.312,75	334.492,52	33.179,77	339.314	4.821,48	367.179,04	27.865,04	65.866,29
25 ZEGAMA	730.742,92	801.892,51	71.149,59	818.670	16.777,49	888.967,89	70.297,89	158.224,97
26 ZERAIN	182.270,69	200.235,33	17.964,64	205.544	5.308,67	224.397,11	18.853,11	42.126,42
27 ZESTOA	1.717.024,48	1.872.796,44	155.771,96	1.936.173	63.376,56	2.103.103,75	166.930,75	386.079,27
28 ZIZURKIL	1.367.784,64	1.451.353,41	83.568,77	1.471.818	20.464,59	1.661.111,24	189.293,24	293.326,60
29 DEBA	2.670.066,93	2.840.218,59	170.151,66	2.871.608	31.389,41	3.140.436,13	268.828,13	470.369,20
30 EIBAR	13.505.055,64	14.437.978,89	932.923,25	14.550.105	112.126,11	15.837.218,63	1.287.113,63	2.332.162,99
31 ELDUAIN	177.892,33	190.005,06	12.112,73	190.154	148,94	202.509,65	12.355,65	24.617,32
32 ELGOIBAR	5.517.626,26	5.957.314,04	439.687,78	6.014.950	57.635,96	6.572.233,20	557.283,20	1.054.606,94
33 ELGETA	548.222,26	590.240,49	42.018,23	586.116	-4.124,49	642.486,16	56.370,16	94.263,90
34 ESKORIATZA	2.002.702,71	2.133.224,45	130.521,74	2.138.114	4.889,55	2.325.634,75	187.520,75	322.932,04
35 EZKIO-ITSAS.	341.470,44	361.797,67	20.327,23	365.397	3.599,33	394.472,77	29.075,77	53.002,33
36 HONDARRIB.	8.106.285,99	8.647.586,28	541.300,29	8.730.114	82.527,72	9.467.447,18	737.333,18	1.361.161,19
37 GAINZA	137.506,08	146.994,42	9.488,34	150.700	3.705,58	154.146,05	3.446,05	16.639,97
38 GABIRIA	281.499,43	312.179,92	30.680,49	315.640	3.460,08	335.639,92	19.999,92	54.140,49
39 GETARIA	1.292.237,17	1.408.449,38	116.212,21	1.413.484	5.034,62	1.543.099,68	129.615,68	250.862,51
40 HERNANI	9.459.201,18	10.129.572,80	670.371,62	10.183.023	53.450,20	11.049.508,91	866.485,91	1.590.307,73
41 HERNIALDE	228.786,59	248.944,67	20.158,08	257.185	8.240,33	277.325,53	20.140,53	48.538,94
42 IBARRA	2.130.269,89	2.281.028,76	150.758,87	2.270.035	-10.993,76	2.453.770,78	183.735,78	323.500,89
43 IDIAZABAL	1.109.365,80	1.185.495,05	76.129,25	1.202.269	16.773,95	1.313.017,37	110.748,37	203.651,57
44 IKAZTEGIETA	279.056,84	302.802,25	23.745,41	304.198	1.395,75	328.210,39	24.012,39	49.153,55
45 IRUN	30.170.657,38	32.220.209,93	2.049.552,55	32.458.037	237.827,07	35.285.526,38	2.827.489,38	5.114.869,00
46 IRURA	740.519,66	823.486,64	82.966,98	849.054	25.567,36	931.665,03	82.611,03	191.145,37
47 ITSASONDO	348.193,62	379.784,46	31.590,84	382.895	3.110,54	421.738,50	38.843,50	73.544,88
48 LARRAUL	184.574,64	201.202,37	16.627,73	198.698	-2.504,37	213.923,44	15.225,44	29.348,80
49 LAZKAO	2.616.481,81	2.794.427,40	177.945,59	2.834.512	40.084,60	3.098.631,14	264.119,14	482.149,33
50 LEABURU	250.657,63	273.310,78	22.653,15	269.891	-3.419,78	290.522,75	20.631,75	39.865,12
51 LEGAZPI	4.293.959,25	4.577.932,18	283.972,93	4.575.665	-2.267,18	4.950.203,14	374.538,14	656.243,89
52 LEGORRETA	726.972,56	779.662,83	52.690,27	798.482	18.819,17	841.998,71	43.516,71	115.026,15
53 LEZO	2.980.599,40	3.179.206,72	198.607,32	3.220.498	41.291,28	3.496.976,40	276.478,40	516.377,00
54 LIZARTZA	344.888,07	378.555,71	33.667,64	371.400	-7.155,71	404.569,32	33.169,32	59.681,25

UDALERRIA	2011	2012	Bilak. (2011-2012)	2013	Bilak. (2012-2013)	2014	Bilak. (2013-2014)	Bilak. Guztira
55 ARRASATE	10.871.605,76	11.549.617,60	678.011,84	11.599.356	49.738,40	12.606.899,63	1.007.543,63	1.735.293,87
56 MUTRIKU	2.468.983,26	2.650.329,57	181.346,31	2.672.260	21.930,43	2.945.601,00	273.341,00	476.617,74
57 MUTILOA	177.218,85	198.003,79	20.784,94	198.993	989,21	216.440,96	17.447,96	39.222,11
58 OLABERRIA	507.814,08	532.028,06	24.213,98	528.396	-3.632,06	575.588,03	47.192,03	67.773,95
59 OÑATI	5.369.828,83	5.770.984,55	401.155,72	5.835.724	64.739,45	6.413.186,53	577.462,53	1.043.357,70
60 OREXA	131.754,75	144.478,86	12.724,11	145.693	1.214,14	154.010,80	8.317,80	22.256,05
61 ORIO	2.459.167,77	2.695.556,30	236.388,53	2.779.812	84.255,70	3.078.116,42	298.304,42	618.948,65
62 ORMAIZTEGI	645.200,49	689.241,19	44.040,70	693.221	3.979,81	743.868,78	50.647,78	98.668,29
63 OIARTZUN	4.884.262,75	5.228.995,99	344.733,24	5.295.023	66.027,01	5.751.342,52	456.319,52	867.079,77
64 PASAIA	7.902.849,36	8.410.893,68	508.044,32	8.451.972	41.078,32	9.145.507,19	693.535,19	1.242.657,83
65 SORALUZE	1.963.883,18	2.111.307,17	147.423,99	2.115.861	4.553,83	2.292.790,06	176.929,06	328.906,88
66 ERREZIL	344.803,88	358.165,40	13.361,52	362.124	3.958,60	387.237,21	25.113,21	42.433,33
67 ERRENTERIA	19.172.997,27	20.597.981,91	1.424.984,64	20.800.463	202.481,09	22.658.132,87	1.857.669,87	3.485.135,60
68 LEINTZ-GATZ.	192.450,21	205.684,78	13.234,57	212.882	7.197,22	218.368,42	5.486,42	25.918,21
69 DONOSTIA	97.697.600,09	104.537.959,84	6.840.359,75	105.591.317	1.053.357,16	114.627.190,71	9.035.873,71	16.929.590,62
70 SEGURA	675.639,56	755.098,95	79.459,39	776.057	20.958,05	840.740,41	64.683,41	165.100,85
71 TOLOSA	8.881.050,24	9.499.961,76	618.911,52	9.622.137	122.175,24	10.644.833,97	1.022.696,97	1.763.783,73
72 URNIETA	3.042.676,62	3.259.138,41	216.461,79	3.282.685	23.546,59	3.584.115,26	301.430,26	541.438,64
73 USURBIL	2.908.011,32	3.146.981,67	238.970,35	3.204.524	57.542,33	3.489.922,73	285.398,73	581.911,41
74 BERGARA	7.240.607,69	7.755.977,92	515.370,23	7.696.356	-59.621,92	8.425.269,20	728.913,20	1.184.661,51
75 VILLABONA	2.846.350,42	3.058.201,73	211.851,31	3.098.369	40.167,27	3.368.361,09	269.992,09	522.010,67
76 ORDIZIA	4.757.919,28	5.103.862,29	345.943,01	5.176.991	73.128,71	5.612.571,58	435.580,58	854.652,30
77 URRETXU	3.340.817,28	3.597.071,98	256.254,70	3.604.006	6.934,02	3.919.194,43	315.188,43	578.377,15
78 ZALDIBIA	739.296,75	779.635,07	40.338,32	786.785	7.149,93	859.312,02	72.527,02	120.015,27
79 ZARAUTZ	11.032.525,24	11.780.014,99	747.489,75	11.881.167	101.152,01	12.902.928,90	1.021.761,90	1.870.403,66
80 ZUMARRAGA	4.915.163,33	5.218.665,31	303.501,98	5.238.382	19.716,69	5.684.137,39	445.755,39	768.974,06
81 ZUMAIA	4.551.525,76	4.876.650,51	325.124,75	4.972.588	95.937,49	5.471.285,98	498.697,98	919.760,22
82 MENDARO	940.645,12	999.913,89	59.268,77	1.019.759	19.845,11	1.126.307,23	106.548,23	185.662,11
83 LASARTE-ORIA	8.692.109,18	9.326.052,12	633.942,94	9.403.367	77.314,88	10.248.150,48	844.783,48	1.556.041,30
84 ASTIGARR.	2.293.439,79	2.457.694,36	164.254,57	2.533.764	76.069,64	2.859.565,72	325.801,72	566.125,93
85 BALIARRAIN	127.162,94	143.056,74	15.893,80	145.940	2.883,26	157.046,79	11.106,79	29.883,85
86 ORENDAIN	162.404,89	179.515,44	17.110,55	178.768	-747,44	186.929,32	8.161,32	24.524,43
87 ALTZAGA	152.195,51	163.507,10	11.311,59	166.120	2.612,90	177.125,13	11.005,13	24.929,62
88 GAZTELU	150.047,09	166.382,76	16.335,67	169.870	3.487,24	179.195,11	9.325,11	29.148,02
GUZTIRA	355.417.522,83	380.651.928,35	25.234.405,52	384.166.612,00	3.514.683,65	418.271.517,67	34.104.905,67	62.853.994,84

Iturria: UDALAK FINANTZATZEKO FORU FONDOAREN BILAKAERA (EVOLUCIÓN DEL FONDO DE FINANCIACIÓN MUNICIPAL), www.udalgida.net –tik moldatua.

Udal Finantzaketarako Fondoa, lehen esan dugu biztanleriarekin loturik doala zati batean behintzat, baina garbi ikusten da bien joerak ez direla berdinak inolaz ere. Nahikoa da 2011 eta 2012 urteen bitartean egon zen aldaketari begiratzea. Izan ere,

UFFF-aren kasuan herri guztietan gora egin zuen eta Biztanleriaren kasuan Udalerrri batzuk behintzat beherako joera izan zuten.

Honen arrazoia, Udal Finantzaketarako Foru Fondoak honako hiru aldagaiak kontuan hartzen dituela izango da:

- a) Alde batetik, Donostiaren kasuan hiriburua izateagatik , Foru Fondo guztiaren %2,15a esleituko zaio eta beraz, nahiz eta biztanlerian murrizketa bat eman, bere foru fondoak igo egin daiteke.
- b) Horrez gain, %3a udalerrri bakoitzeko errentaren alderantzizko proportzioaren arabera banatzen da, udalerrrien eskubidezko biztanle kopuruaz haztatua. Beraz honek ere eragiten du Foru Fondo eta biztanleriaren mugimenduak ezberdinak izatera bultzatzea.
- c) Eta azkenik, udalerrri bakoitzeko ahalegin fiskalaren zuzeneko proportzioaren arabera banatzen da beste %3,5a , udalerrrien eskubidezko biztanle kopuruaz haztatua.

Arrazoi hauek direla eta, Biztanleria eta UFFF-ak ez digute beti erantzun berbera emango. Gure kasuan biztanleriaren datuek trantsizioaren gainean datu zehatzagoak ematen dizkigute, izan ere hiriburu izatearen faktorea, errenta edota ahalegin fiskalak ez digute zuzenean burutu nahi dugun hipotesiaren gainean ekarpenik egiten.

Udal finantzaketarako Foru Fondoak banatzerako orduan Biztanleri kopurua da faktorerik nagusiena, eta begirada bat emango diogu. Izan ere, ikusi nahi duguna honakoa da: Etxebizitza hutsak aurkitzen diren herrietan, hauen titularrak erroldatu diren edo ez. Eta noski bertan erroldatu badira, kokapen horretako etxebizitza hutsen kopuruak behera egingo du eta aldiz biztanleriak gora. Hori horrela izanik, eta herri edo udalerrri horretako biztanleria altuagoa izanik, Udal Finantzaketarako Foru Fondoak ere gora egingo du teorian. Eta hori dela eta, guretzako garrantzitsua da baieztatzea ea UFFF-aren aldetik gehiago kobratu duten etxebizitza hutsen kokagune diren herri horiek.

Kontrako ikuspuntutik begiratuta, biztanleria murriztu den Udalerrietan, teoriarik behintzat, UFFF-ak behera egin beharko lukeela dirudi. 2011- 2012 bitartean behintzat hau ez zen horrela izan, eta honen arrazoiak izan daitezkeenak ikusi ditugu. Ondoren beste urteen artean zer gertatzen den begiratuko dugu.

Gainerako urte tarteetan ere, ez dator biztanleriaren mugimendua bat Foru Fondoaren bilakaerarekin. Honek ez du esan nahi biztanleria handitzeak Foru Fondo txikituko duenik. Badakigu biztanleria zenbat eta handiagoa izan udalerririk batean, jasoko duen UFFF hori ere, handiagoa izango dela, beste aldagai batzuk kontuan izaten dituen arren. Baina gure analisia burutu ahal izateko aukeretako bat trantsiziorik handiena duten 10 udalerririk hautatzea iruditzen zait (biztanleria aldagai kontuan izanik), eta horrela osatuko dugu erabiliko dugun lehen lagina, izan ere udalerririk guztiekin lanean hastea oso konplexua eta luzea izatera iritsi daiteke. Hau errazteko eta analisia ulergarriago egin ahal izateko hautaketa bat egitea beharrezkoa iruditzen zait.

Horrez gain, iruditzen zait biztanleriaren datuek argiago erakusten dutela mugimendua nolakoa izan den eta horregatik biztanleriaren datuen arabera finkatuko ditugu, analisirako erabiliko ditugun udalerririk.

6.4 BIZTANLERIARI DAGOKIONEZ MUGIMENDU EDO TRANTSIZIO HANDIENA PAIRATU DUTEN UDALERRIEN HAUTAKETA

Hautaketa honekin hurrengo pausoa emango dugu, hau da Gradu amaierako lan edo azterketa honetan erabiliko dugun lehen lagin bat finkatuko dugu, azterketa argiagoa edo ulertzeko errazagoa izan dadin. Horretarako biztanleriaren mugimenduan zentratuko gara eta honen barnean mugimendua biztanle kopuruaren arabera behatuko dugu. Izan ere, zenbat biztanleko errolda aldaketa egon den behatzea

interesatzen zaigu, eta ez digu hainbesteko informaziorik ematen, adibidez, ehuneko aldagaietan sartzeak.

Kopuruan hazkunderik handiena izan duten hamar udalerririk aukeratzea izan daiteke azterketa hau burutzeko moduetako bat. Nik kasu honetan hamar horien barnean, biztanleria mugimendu handiena izan duten udalerriez gain, Zarautz eta Donostia sartzea erabaki ditut nahiz eta ez duten mugimendu handiena jasan, beste herri batzuekin alderatuta. Izan ere, etxebizitza hutsen kopuruari dagokionez, biek indar oso handia dute, batez ere Zarautzek, geroago ikusi ahal izango dugun moduan. Eta Donostia hiriburua izanik, lagin honen barnean sartzea interesgarria dela uste dut. Hautatutako hamar udalerririk hauek, erabili dudan irizpidearen arabera, honakoak dira, bakoitzak ondorengo taulan ikus dezakezuen biztanleria mugimenduak izan dituelarik:

Taula 11: Lagina osatzeko hautatutako Udalerririk eta berain biztanleririk jasandako bilakaera

UDALERRIA	2011	2012	Bilak. (2011-2012)	2013	Bilak. (2012-2013)	2014	Bilak. (2013-2014)	Izandako bilakera (2011-2014)
ASTIGARRAGA	4.818	4.999	181	5.304	305	5.535	231	717
TOLOSA	18.232	18.574	342	18.836	262	18.936	100	704
ORIO	5.270	5.382	112	5.524	142	5.694	170	424
HONDARRIBIA	16.499	16.518	19	16.795	277	16.894	99	395
HERNANI	19.296	19.284	-12	19.354	70	19.601	247	305
ZUMAIA	9.461	9.581	120	9.626	45	9.734	108	273
ARETXABAETA	6.725	6.850	125	6.930	80	6.995	65	270
MUTRIKU	5.029	5.101	72	5.225	124	5.293	68	264
ZARAUTZ	22.697	22.650	-47	22.760	110	22.890	130	193
DONOSTIA	186.185	186.409	224	186.500	91	186.126	-374	-59
GUZTIRA	294.212,00	295.348,00	1.136,00	296.854,00	1.506,00	297.698,00	844,00	3.486,00

Iturria: Boletín oficial del estado (Nº 308)-tik (Lunes 22 de Diciembre de 2014) eta INE-tik moldatuta

Taula honetan agertzen diren lehenengo zortzi Udalerririk, biztanleriaren mugimenduan inpaktu handiena eman dutenak izan dira. Guzti hauek, 264 biztanletik hasi eta 717 biztanlera bitarteko igoera bat jasan dutelarik. Azkeneko biak ordea ez

ditugu lagin honetan sartu biztanleriaren bilakaerari dagokionez nabarmendu direlako. Baina bai, interesgarria iruditzen zaigulako hauek ere gure analisiaren parte izatea. Zarautz etxebizitza huts gehien kokatzen diren udalerrria delako Gipuzkoa mailan, eta Donostia ere, etxebizitza huts kopuru asko izateaz gain Hiriburua delako.

Lehenengo lagina hautaturik dagoela, orain analisi honekin hastea besterik ez zaigu gelditzen.

7 HAUTATUTAKO LEHEN HAMAR UDALERRIEKIN ANALISIA

Planteatu dugun hipotesi hau baieztatu ahal izateko edo egiaztatzeko, lehenik Gipuzkoako 10 udalerrri aukeratzea erabaki dugu (ondoren beste 10 udalerrirekin ere azterketa bat burutuko dugu). Udalerrri hauek kostaldean zein barrualdean kokaturik daude, eta hau egokia izan daiteke konparaketak egin ahal izateko. Badakigu, bigarren etxebizitza gehienak kostaldean edo udalerrri turistikoetan kokaturik egongo direla normalean, eta interesgarria iruditzen zaigu bai turistikoak diren eta ez diren udalerrriak aurkitzea gure laginaren barnean, honela elkarrekin konparatzeko aukera izango dugulako.

7.1 LEHEN AZTERKETAKO HAMAR UDALERRIEN ETXEBITZA HUTSEN GAINKO ERREKARGUA

Zergetan edo Foru Fondoan emango diren diferentziak hautemateko, aukeratuko ditugun Udalerrri hauek bete beharko duten baldintza, Ondasun Higiezinaren gaineko zergan, etxebizitza hutsen gain, errekarria aplikatzea izango da. Izan ere, errekarria hori 0 izanez gero etxebizitzaren titularrek ez lukete gehiago ordaindu beharrik izango beraien etxebizitza hutsen gaineko zergan, eta beraz, ez lukete etxebizitza horretan erroldatu beharrik edukiko zerga gehigarri ori ekiditeko.

Aukeratu dugun lehen lagineko Udalerri guztiek baldintza hau betetzen dute, izan ere gure 10 udalerri hauetako bakoitzak, errekarua hori aplikatu dute bai 2013.urtean eta baita hurrengoan ere.

Taula 12: Analisisiko Udalerriek duten etxebizitza hutsen gaineko errekarua

<u>UDALERRIA</u>	<u>2013</u>	<u>2014</u>
ASTIGARRAGA	75	75
TOLOSA	50	50
ORIO	100	100
HONDARRIBIA	50	50
HERNANI	50	100
ZUMAIA	75	75
ARETXABALETA	100	100
MUTRIKU	75	75
ZARAUZ	100	150
DONOSTIA	50	25

Iturria: ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA: 2013 eta 2014KO TIPOAK, www.udalgida.net – tik moldatua.

Taula honi erreparatuz, errekarua zenbatekoa den badakigu, baina interesatzen zaiguna errekarua aplikatzen hasi aurretik hasita eta errekarua aplikatu ondorenera, Ondasun higiezinaren gaineko Zergak izan duen bilakaera nolakoa izan den ikustea da. Modu honetan, errekarua aplikatzeak Ondasun Higiezinaren gaineko zergak igoserarik izan duen edo ez frogatu edo egiaztatu ahal izango baitugu.

7.2 ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA GURE LEHEN AZTERKETAREN BARNEAN

Aztergai ditugun udalerrietan 2011.urteetik hasi eta 2014. urtera arte (errekaruaren kontzeptua martxan jarri aurreko bi urteak eta ondorengo bi urteak), Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren zenbatekoak behatuko ditugu. Zerga honen eboluzioa aztertzean, frogatu nahi dena ondorengoa da: Errekaruaren kontzeptu honengatik, OHZ-k ez duela esperoko litzakeen igoserarik jasan.

Lehenengo taula batean, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergak erakutsiko ditugu, eta ondoren pixka bat sakontzeko asmoz, zuzeneko zerga honen bilakaera nolakoa izan den islatuko duen beste taula bat sartuko dugu.

Taula 13: Herri bakoitzak jasotako Ondasun Higiezinaren gaineko zerga

	2011	2012	2013	2014
ASTIGARRAGA	1.040.004,00	1.145.000,00	1.262.744,00	1.253.475,90
TOLOSA	3.060.000,00	3.275.000,00	3.554.774,00	3.698.603,18
ORIO	510.000,00	580.000,00	570.000,00	708.986,03
HONDARRIBIA	4.240.000,00	4.323.000,00	4.773.900,00	5.180.087,99
HERNANI	3.045.816,00	3.138.258,00	3.337.061,00	3.580.814,61
ZUMAIA	1.400.000,00	1.624.591,00	1.744.365,48	1.835.027,75
ARETXABAETA	890.000,00	980.000,00	1.075.000,00	1.110.196,22
MUTRIKU	550.000,00	600.000,00	665.000,00	761.803,67
ZARAUTZ	3.860.000,00	4.000.000,00	4.779.417,37	5.153.973,92
DONOSTIA	36.948.034,78	39.243.083,61	40.685.074,25	40.939.240,66
GUZTIRA	55.543.854,78	58.908.932,61	62.447.336,10	64.222.209,93

Iturria: Norberak eginiko ikerketa

Taula honetan islaturik agertzen diren datuak, likidaturiko datuak dira, hau da, behin betiko datutzat hartu ditzakegu. Zerga honek izan duen bilakaera garbiago ikusi ahal izateko, taula bat osatuko dugu aurrerago igoera edo jaitsieren portzentajeak zenbatekoak izan diren islatzen dituen.

Kasu ia guztietan Ondasun Higiezinaren gaineko zergak izandako bilakaera gorakorra da. Datu hau, gure hipotesiak dioenarekin kontrajartzen da nolabait, baina lanaren lehen puntuak aipatu dugun moduan, OHZ kalkulatzeko erabilitako karga tasek gora egin dute (aldaketaren bat izan badute behintzat). Honek esan nahi du, hemen ikusten den bilakaera positibo hori karga tasari loturik dagoela zati batean behintzat eta udalerrri batzuen kasuan.

Azter dezagun orain Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren bilakaera kopuruek izan dituzten hazkunde eta murrizketei ehunekotan erreparatu:

Taula 14: OHZren bilakaera zenbateko eta ehunekoetan

	2011	2012	2011-2012 bilakaera		2013	2012-2013 bilakaera		2014	2013-2014 bilakaera	
			kop.	%		kop.	%		kop.	%
ASTIGARRAGA	1.040.004,00	1.145.000,00	104.996,00	110,10%	1.262.744,00	117.744,00	110,28%	1.253.475,90	-9.268,10	99,27%
TOLOSA	3.060.000,00	3.275.000,00	215.000,00	107,03%	3.554.774,00	279.774,00	108,54%	3.698.603,18	143.829,18	104,05%
ORIO	510.000,00	580.000,00	70.000,00	113,73%	570.000,00	-10.000,00	98,28%	708.986,03	138.986,03	124,38%
HONDARRIBIA	4.240.000,00	4.323.000,00	83.000,00	101,96%	4.773.900,00	450.900,00	110,43%	5.180.087,99	406.187,99	108,51%
HERNANI	3.045.816,00	3.138.258,00	92.442,00	103,04%	3.337.061,00	198.803,00	106,33%	3.580.814,61	243.753,61	107,30%
ZUMAIA	1.400.000,00	1.624.591,00	224.591,00	116,04%	1.744.365,48	119.774,48	107,37%	1.835.027,75	90.662,27	105,20%
ARETXABAL	890.000,00	980.000,00	90.000,00	110,11%	1.075.000,00	95.000,00	109,69%	1.110.196,22	35.196,22	103,27%
MUTRIKU	550.000,00	600.000,00	50.000,00	109,09%	665.000,00	65.000,00	110,83%	761.803,67	96.803,67	114,56%
ZARAUTZ	3.860.000,00	4.000.000,00	140.000,00	103,63%	4.779.417,37	779.417,37	119,49%	5.153.973,92	374.556,55	107,84%
DONOSTIA	36.948.034,78	39.243.083,6	2.295.048,8	106,21%	40.685.074,2	1.441.990,64	103,67%	40.939.240,6	254.166,41	100,62%
GUZTIRA	55.543.854,7	58.908.932	3.365.077	106,06%	62.447.336	3.538.403,49	106,01%	64.222.209	1.774.873	102,84%

Iturria: Norberak eginiko ikerketa

Orokorrean, 10 udalerrri hauei erreparatzen badiegu, bilakaeraren hazkundera jaitxi egin da 2013-2014 urteen artean 2011tik 2013 urtera arteko denbora tartearekin alderatzen badugu. 2011-2013 bitartean hazkundera ehuneko 106 inguruan mantendu da, 2013-2014 urte bitartean ordea, hazkundera ehuneko 102 izatera pasa da gutxi gora-bera.

2013. urtean hasi ziren etxebizitza hutsen gaineko errenergua aplikatzen edo kobratzen, eta errenergua honekin OHZ-tik gehiago kobratzea esperoko litzateke teoriarik. Gehiago kobratzearekin batera, hazkunde honen bilakaera ere gorakorra izango litzatekeela esperoko litzateke, baina hau ez da horrela izan. Guzti honek, gure teoria errealitatea izan litekeela pentsatzera bultzatzen gaitu.

Begirada bat emango diegu jarraian bilakaera hau erakusten duten datuei, baina oraingoan herrietan edo udaletan zentratuko gara. Astigarragarekin hasiz, aipatzekoa da azken bi urteen artean bilakaera negatiboa izan duen bakarra dela. Udalerrri honek (aurrerago ikusi dugun puntu batean islatzen zen moduan) besteekin alderatuta, biztanleria hazkunde handiena izan du. Hau guztia gure hipotesian islatzen saiatzen bagara, ondorengo pentsatu dezakegu: Posible da, Astigarragan kokaturik dauden (edo zeuden) etxebizitza hutsen titularrek, hauetan erroldatzea edota hauek alokatu izatea, horrela errenergua ez ordaintzeko. Honek, biztanleriaren hazkundera eta OHZ-

ren bilakaera negatiboa azalduko lituzke. Ondoren, ea benetan etxebizitza hutsen kopuruak behera egin duen ikusi beharko dugu, eta guzti honek UFFF-an izandako eragina zein izan den aztertu beharko dugu, baina hau geroago ikusiko dugu.

Astigarragaren kasuan bezalaxe, Tolosa, Zumaia, Aretxabaleta eta Donostiak ere, joera beherakorra izan dute Zerga honen bilketari dagokionez. Lau udalerrri hauetan ordea bilakaera horrek txikiagoa izan arren, hazkunde bat izaten jarraitu du. Astigarragaren kasu berdina ikus dezakegu beraz, udalerrri hauen kasuan, baina neurri edo eragin txikiago batekin.

Orioren kasura pasatzen bagara, besteen joera ezberdinak dituela konturatuko gara. Izan ere, honen bilakaera 2011tik 2012ra positiboa da, ondoren hurrengo urteen artean negatiboa izatera pasatzen da eta azkenik 2013-2014 bitartean izugarritzko hazkundera izan du, ehuneko 124,38 hain zuzen ere. Orioren kasuan aurrerago ikusiko dugun moduan etxebizitza hutsen kopuruak ere behera egin beharrean (beste udalerriekin pasatzen den moduan) gora egiten du eta ondorioz, esan daiteke gure hipotesiarekin kontrajartzen dela udalerrri honen kasua, kontzeptu bat baino gehiagori dagokionez. Beraz, salbuespen gisa hartuko dugu Orio momentuz behintzat. Posible da, Orioko etxebizitza hutsen titularrek 2013 aurretik errenergua ekiditeko ekintzak hartzea eta horregatik izatea 2012-2013 bitartean OHZ-ren bilakaera negatiboa. Baina etxebizitza hutsen kopuruak 2012 eta hurrengo urtearen artean zein bilakaera izan duen islatzen dituzten datuak ez ditugunez, ezin dugu hau ziurtasunez horrela izan dela esan.

Bilakaera gorakor konstantea izan dutenak, Hernani eta Mutriku dira, Zerga honi dagokionez. Hernaniren kasua hartuko dugu lehenik. Honek nahiz eta geroago ikusiko dugun moduan etxebizitza hutsen kopuruetan beherakada bat izan duen, etxebizitza hutsen errenergutik kobratuko duenaren portzentajea igo egin du, eta beraz, honek etxebizitza huts gutxiago izatea konpentsatzen du, horrela, OHZ-ren zenbatekoek izandako bilakaera mantentzea ahalbidetzen diolarik. Mutrikuren kasuan ez da errenergua portzentaje horren inolako aldaketarik ematen, baina etxebizitza hutsen kopuruak ez du zenbateko handi batean bera egiten eta beraz, ez du eragin negatiborik ekartzen aztertzen ari garen zerga honetara.

Azkenik, Hondarribia eta Zarautzen kasuak aipatzea gelditzen zaigu. Hauetan bilakaera positiboa izan da 2011tik hasi eta 2014ra arte. 2013-2014 urteen bitartean zentratuko gara ordea. Izan ere etxebizitza hutsen bilakaera azken bi urteetan landuko dugu (hurrengo puntuan) eta bien arteko lotura nolakoa izan den aztertzea interesatzen zaigu. OHZ-ren bilakaera beherantz doa aipaturiko bi urte hauen artean eta baita, ikusiko dugun moduan, etxebizitza hutsen kopurua ere, bi udalerrri hauek direlarik (Donostiaz aparte), etxebizitza huts gehien dituztenak. Bi kontzeptuen artean beraz, lotura bat egongo litzateke. Etxebizitza hutsen kopuruak behera egiten badu, baita hauetatik kobratuko denak ere, eta honekin batera OHZ-ren bilakaera positiboa ere murrizten joango da.

7.3 ETXEBIZITZA HUTSEN KOPURUA ETA HAUEN GAIN EZARTZEN DEN ERREKARGUTIK KOB RATZEN DENA

Aztertzen ari garen 10 udalerrri hauetan, 2013 eta 2014 urteetan zenbat etxebizitza huts aurkitzen ziren aztertuko dugu orain. Horretarako kopuruak taula batean islatu eta ondoren grafiko baten bitartez erakutsiko ditugu, bilakaera hautematea errazagoa izan dadin.

Taula 15: Etxebizitza hutsen kopuruak


	2013	2014
ASTIGARRAGA	119	96
TOLOSA	536	520
ORIO	284	295
HONDARRIBIA	1.807	1.556
HERNANI	599	443
ZUMAIA	505	487
ARETXABALETA	287	240
MUTRIKU	464	427
ZARAUTZ	2.459	1.883
DONOSTIA		1.939
<u>GUZTIRA</u>	<u>11.950,00</u>	<u>7.886,00</u>

Iturria: Norberak eginiko ikerketa

Donostiaren kasuan 2013.urteko datua falta zaigu. Hutsune hori betetzeko datua, Gaur izeneko Donostiaren web-orria arakatuz lortuko dugu, eta bertan, gutxi gora-behera, zerga hau aplikagarri zaien 4.890 etxebizitza aurkitzen zirela ulertu dezakegu. Beraz, nahiz eta datu hau ez den beste datuak jaso ditugun iturri berekoa, kopuruak inguru horretan ibiliko dela pentsa dezakegu eta alderaketa bat egiteko datu bezala baliagarri zaigu. Guztirako kopuruak kalkulatzeko orduan, kontuan eduki, Donostiako lehen urteko datua ere barnean sarturik dagoela, eta beraz guztirakoak errealak direla, nahiz eta hutsune hori izan.

Ikusi dezakegu taula honetan, etxebizitza hutsen kopuruek behera egin dutela 2013 eta 2014. urteen bitartean, Orioren kasuan izan ezik, bertan etxebizitza hutsen kopuruak gora egin baitu. Atzera egiten badugu, eta Orioren biztanle kopuruak izandako bilakaera erreparatu, konturatuko gara, biztanleria aldetik Oriok igoera bat izan duela. Pentsa genezakeen, biztanleria horren igoera, etxebizitza hutsen jaitzierarekin loturik egon zitekeela (biztanleak etxebizitza huts horietan erroldatu izanagatik), baina datu honi begiraturik, konturatzen gara hori ez dela horrela. Orio Udalerrian eman diren gertaerekin beraz, ezin dugu gure hipotesia baieztatu, ez baita guk espero genuen gertakaririk eman.

Taula honetan islaturiko datu hauen bilakaera argiago ikusiko da, ondorengo grafiko honen bitartez:

Grafikoa 2: Analisiaren parte diren Udalerrietako etxebizitza hutsten kopuruak

Iturria: Norberak eginiko ikerketa

Donostiaren kasuan, esan bezala, 2013ko datua beste iturri batetik lortua izan da eta beraz, nahiz eta grafiko honetan sartu ez dudan, beste gainontzeko udalerrri gehientsuenak izan duten joera berdina emango da. Hau da, 2013an barra altuagoa egongo litzateke 2014ean baino, etxebizitza hutsten kopuruak jasan duen joera beherakorra izan baita.

Astigarraga, Tolosa, Hondarribia, Hernani, Zumaia, Aretxabaleta, Mutriku eta Zarautzen kasuan bilakaera berdina ikusi daiteke. 2013tik, 2014.urtera etxebizitza hutsten kopuruak behera egin du.

Hondarribia eta Zarautz izan dira etxebizitza huts gehien dituzten herrialdeak, eta nabarmen hautematen da hauek izan duten jaitsiera. Bi hauen analisi sakonagoa egiten hasi aurretik, aipatu nahiko nuke bai Hondarribia eta baita Zarautz ere, oso

Udalerrri turistikoak direla eta ondorioz proposak izan daitezkeela zenbaitek berain bigarren etxebizitzak bertan kokaturik izateko.

Hondarribiaren kasuan, 2013an 1.807 etxebizitza huts izatetik 1.556 izatera pasa zen. Hau da, 251 etxebizitza huts gutxiago jaso ziren bigarren urtean. Etxebizitza hutsen bilakaera, biztanleriak izan duenarekin alderatzen badugu, ikus dezakegu, posible dela hauek loturik egotea. Hala ere, 99 biztanle gehiago erregistratu ziren 2013-2014 urteen bitartean erroldari dagokionez, eta etxebizitza hutsen kopurua zenbateko handiago batean murriztu zen. Honek esan nahi du, etxebizitza hutsen jaitsiera horretan, ez duela bakarrik titularrek Hondarribian kokaturiko bigarren etxebizitzetan erregistratzeak eragin (hau horrela izan balitz behintzat). Etxebizitza hauek saldu izana izan liteke etxebizitza hutsen jaitsieraren arrazoietakoa bat edo salbuespen kasuak aplikatu izana, etxebizitzak alokatzea esaterako. Baina biztanleriaren hazkundera etxebizitzaren jaitsierarekin alderatuta, oso baxua denez, familien mugimendu bat emateko aukerak edo probabilitatea osoa baxua dela ikus daiteke.

Zarautzen kasuan, jaitsiera hori, oraindik ere nabarmenagoa izan da. Aipatzen ari garen lehen urtean 2.459 baitziren Zarautzen kokatutako etxebizitza hutsak eta hurrengo urtean 576 gutxiago, hau da, 1.883ra murriztu da kopurua. Hondarribiaren kasuan bezala, neurri batean edo gure ustetan behintzat, loturik egon daiteke biztanleriaren igoera, etxebizitza hauen beherakadarekin. Kasu honetan biztanleriaren igoera urte tarte honetan 130 izan delarik.

Lehen aipatu bezala, Oriok izan ezik, beste gainontzeko udalerriek ere joera berdina jasan dute, baina udalerrri hauen tamaina txikiagoa denez, jasandako eragina ere ez da hain handia izan. Zumaiaren kasuan 2013.urtean 505 aurkitzen ziren eta 18an bakarrik murriztu da kopurua. Astigarragaren kasuan murrizketa zertxobait handiagoa izan da, 23 etxe gutxiago kontatu direlarik. Tolosan 536tik 520ra jaitsi dira, ez delarik oso handia izan beherakada hori. Zumaia, Astigarraga eta Tolosaren kasuan, biztanleriak gorakada izan du, datu hau beraz, ez da gure hipotesiari kontrajartzen.

Hernaniren kasuan handiagoa izan da murrizketa 599tik 443ra jaitsi baitira, hau da, 156 etxe huts gutxiagorekin geldituz eta biztanleriaren igoera besteetan baino nabarmenagoa izan da baita ere (247koa hain zuzen ere). Mutriku Udalerrian 37 etxebizitza huts gutxiago erregistratu ziren 2014an, eta Aretxabaletan, berriz, 47. Azken bi hauetan biztanleriak izandako bilakaera ere, etxebizitza hutsena bezala, ez da hain handia.

Orio da kontrako joera izan duen udalerrri bakarra. Izan ere bertan, etxebizitza hutsen kopuruak gora egin du, errekarua aplikatu zen lehen urtetik bigarrenean. 2013.urtean 284 etxebizitza huts jaso ziren eta 2014an berriz, 295. Eta ondorioz, lehentsuago aipatu moduan, ez da Orio gure hipotesiaren azterketan lagungarria.

Etxebizitzen kopurua ikusirik, orain udalerrri bakoitzak errekarua honetatik kobratu edo irabazi duen kopuruan zentratuko gara. Etxebizitza hutsen gain aplikatutako errekarua horretatik jasotakoa zenbatekoa den ondorengo taulan ikusi daiteke:

Taula 16: Etxebizitza hutsen errekarutik kobratzen dutena

	2013	2014
ASTIGARRAGA	18.528,28	14.818,90
TOLOSA	70.909,11	68.830,60
ORIO	53.107,11	54.119,74
HONDARRIBIA	476.579,22	405.229,05
HERNANI	67.666,28	95.970,84
ZUMAIA	98.983,69	95.852,87
ARETXABALETA	69.327,39	61.724,75
MUTRIKU	60.230,04	38.003,32
ZARAUTZ	819.983,69	954.719,22
DONOSTIA		205.229
GUZTIRA	1.735.314,81	1.994.498,75

Iturria: Norberak eginiko ikerketa

Taula honen kasuan ez da lehenago aipatu dugun berdina pasatzen, hau da, oraingoa ez daukagu Donostiaren kasuan 2013.urteko daturik, eta beraz, datu totalak

ez dira errealak 2013.urterako. Beraz, ezingo dugu totalen konparaketarik egin taula honen barnean. Bai ordea, herriz herriko analisi bat.

Hasiera batean atentzioa ematen dutenak Zarautz eta Hondarribia Udalerriak dira. Beste Udalerriekin alderatzen baditugu, etxebizitza hutsen errekargutik kobratzen duten kopurua, izugarria baita.

Aztergai dauden herri eta hiri guztietan joera espero zen bezalakoa izan da , Zarautz eta Hernaniren kasuetan izan ezik (arrazoi horregatik, gorriz markaturik agertzen zaizkigu gainera taula horretan). Orioren kasuan kopurua igo egin da eta besteetan aldiz, murriztu. Baina lehen esan dugu, 2013tik 2014ra, etxebizitza hutsen kopuruak behera egin duela bai Zarautzen eta baita Hernanin ere. Zergatik orduan etxebizitza hutsen gain ezartzen den errekargutik lortutako irabaziak gora egin du bietan? Honen arrazoa ondorengoa da: Nahiz eta etxebizitza huts gutxiago izan 2014an, bakoitzari aplikatu zaion errekargua igo egin da. Hau da 2013an errekargu honen zenbatekoa Zarautzen 100ekoa zen baina 2014an zenbateko hori 150 izatera pasa da. Etxebizitza huts bakoitzagatik gehiago kobratzean, kopurua jaisteak ez die eragin negatiborik ekarri Zarautzko udal administrazioaren sarrerei. Gauza berdina gertatu da Hernaniren kasuan. Errekargua 50 izatetik 100 izatera pasa da kasu honetan. Eta beraz, nahiz eta etxebizitza hutsen kopuruak beherakada bat izan, errekarguen ondorioz kobratutakoa 28.304,56€tan igo da urte batetik bestera.

7.4 UFFF-K IZANDAKO BILAKAERA ONDASUN HIGIEZINEN ZERGAZ IZANDAKO ALDAKETAREN ONDORIOZ

Azterketako lehen atal honi bukaera eman nahian, eta bigarren lagin batekin lanean hasi aurretik, Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren gain, lan osoan zehar aipatzen joan garen errekargu hori ezartzeak, ze eragin izan duen ikusten saiatuko gara orain. Horretarako taula baten barnean lagineko hamar udalerriak eta lau urtetan zehar hauek jaso dituzten UFFF-ren kopuruak islatuko ditugu.

Taula 17: UFFF-ren bilakaera azterketa honen baitan

<u>UDALERRIA</u>	<u>2011</u>	<u>2012</u>	<u>2013</u>	<u>2014</u>
ASTIGARRAGA	2.293.439,79	2.457.694,36	2.533.764,28	2.859.565,72
TOLOSA	8.881.050,24	9.499.961,76	9.622.137,41	10.644.833,97
ORIO	2.459.167,77	2.695.556,30	2.779.811,55	3.078.116,42
HONDARRIBIA	8.106.285,99	8.647.586,28	8.730.113,72	9.467.447,18
HERNANI	9.459.201,18	10.129.572,80	10.183.022,50	11.049.508,91
ZUMAIA	4.551.525,76	4.876.650,51	4.972.588,26	5.471.285,98
ARETXABALETA	3.282.996,09	3.507.686,57	3.544.735,51	3.916.154,22
MUTRIKU	2.468.983,26	2.650.329,57	2.672.259,75	2.945.601,00
ZARAUTZ	11.032.525	11.780.014	11.881.166,80	12.902.928,90
DONOSTIA	97.697.600	104.537.959	105.591.317	114.627.191
GUZTIRA	150.232.775,08	160.783.011,15	162.510.916,78	176.962.633,01

Iturria: UDALAK FINANTZATZEKO FORU FONDOAREN BILAKAERA (EVOLUCIÓN DEL FONDO DE FINANCIACIÓN MUNICIPAL), www.udalgida.net –tik moldatua.

Azterketa honen barnean hautatu ditugun hamar udalerrri hauei dagokionez, udal finantzaketarako foru fondoaren bilakaera ikustera pasako gara orain. Azkenean lanaren helburu nagusia OHZ-ak fondo honetan izandako eragina zein izan den aztertzea da. Izan ere, orain arte aipaturiko gure teoria zuzena baita eta etxebizitza hutsen titular direnek, beraien erroldak aldatu badituzte, edota etxebizitza hutsak alokatu badituzte aplikatu zaien errenergia ekiditeko, honek Foru Fondoaren igoera ekarriko luke. Ikus dezagun beraz, Foru Fondoak 2011 eta 2014 urteen bitartean bilakaera positibo hori izan duen edo ez.

Azken taula horri erreparatzen badiogu, ikus daiteke herri guztietan Foru Fondoak izandako bilakaera positiboa izan dela urte guztietan. Baina kopuruei arreta handiago bat jartzen badiogu, konturatzen gara igoera hori 2013 eta 2014 urteen bitartean lehenago izandakoa baino askoz ere nabarmenagoa dela.

Taula 18: : UFFF-ren bilakaeraren azterketa sakonago bat

<u>UDALERRIA</u>	<u>2011</u>	<u>2012</u>	<u>Bilak. (2011-2012)</u>	<u>2013</u>	<u>Bilak. (2012-2013)</u>	<u>2014</u>	<u>Bilak. (2013-2014)</u>
ASTIGARRAGA	2.293.439,79	2.457.694,36	164.254,57	2.533.764,28	76.069,92	2.859.565,72	325.801,44
